

1/2011 FORU ARAUA, martxoaren 24koa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zergari buruzkoa (BAO Martxoaren 31koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Araua onartu dutela 2011ko martxoaren 24an, eta hura aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO MARTXOAREN 24KO 1/2011 FORU-ARAUA.

HITZAURREA

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga zeharkako zerga bat da, hainbat zerga-egitate zergapetzen dituena. Egitate horiek hiru modalitatetan banatzen dira:

- Kostubidezko Ondare Eskualdaketak (KOE): egitate mota horrek enpresa-jarduera ez den ondare-trafiko zergapetzen du, hau da, izaera zibileko edo norbanakoen arteko jarduerak.
- Sozietate-eragiketak (SO): egitate mota horrek enpresen finantziazioaren alderdirik garrantzitsuenak zergapetzen ditu. Alderdi horiek sozietate-kontratutik eta hari lotutako ondare-lekualdaketatik eratorritakoak dira, hala nola sozietateen eraketa edo kapital-gehikuntza.
- Egintza Juridiko Dokumentatuak (EJD): egitate mota horrek notario-agiriak zergapetzen ditu, hala nola eskritura publikoak edo merkataritzakoak eta kanbio-letrak.

Hainbeste zerga-egitate egoteak ez du eragozten guztiak batera arautzea. Bizkaiko Lurralde Historikoan, arautze-lan horren aurrekaririk hurbilena Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 21eko 3/1989 Foru Araua da.

Hogei urte baino gehiago pasatu dira 1989ko foru araua argitaratu zenetik; denbora horretan, zergan eragina izan duten zeharkako hainbat xedapen onartu dira, eta aldaketa ugari egin dira zerga bera arautzen duen testuan. Azken aldaketek ondorioak izan dituzte zergaren kudeaketan, sistema telematiko berri bat ezarri baita autolikidazioak aurkezteko eta haiei dagokien ordainketa egiteko.

Horrez gainera, zerga arautzeko proiektu berriarekin desagertu egin dira zenbait zehaztugabetasun, eta ordeztu egin dira aurreko foru arauan terminologia zaharkituaren gainean egiten ziren zenbait aipamen. Era berean, foru arauaren testua Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorreko termino eta kontzeptuei egokitu zaie.

Hala ere, bada beste funtsezko arrazoi bat Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 21eko 3/1989 Foru Araua ordeztuko duen foru arau berri bat onartzeko: foru arau horren egitura zergak arautzeko eredu zahar baten arabera da. Eredu horretan, foru arauak laburrak eta eduki gutxikoak ziren, eta erregelamenduan jasotzen ziren zergari buruzko gainerako arauak.

Eredu hori zaharkitua geratu da erabat, eta, ondorioz, zerga-sistema moderno baten arautegiaren oinarria foru arau luze bat izan behar da, zergaren oinarriko elementuak

zehaztuko dituen, baina, aldi berean, botereen banaketaren printzipio klasikoa errespetatuko duena eta zergaren bigarren mailako alderdiak eta prozedurazkoak erregelamendu baten bidez garatzeko utziko dituen.

Azaldutako arrazoiengatik, foru arau honek ez du alde batera uzten zerga-sistema; alderantziz, foru arau honen helburu bakarra biltze lan bat egitea da, zergadunari Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga konplexu honen arautegia erraz ulertzeko aukera emateko.

Lan kodifikatzaile garrantzitsu honen adibide gisa, salbuespenei buruzko artikulua nabarmendu behar dira. Salbuespen subjektiboak, objektiboak eta bestelakoak bereizi dira, aurreko foru arauan jaso izan diren aldaketa ugariak eta zeharkako beste arautegi batzuetan jasotako salbuespenak testu bakarrean sartzeko.

Hala ere, biltze lan hori zergan hobekuntzaren bat sartzeko ere baliatu da. Hala, bada, finken errentamenduak egiten direnean, desagertu egin da nahitaez efektu tinbredunen bidez ordaintzeko betebeharra, merkataritzako trafikoa errazteko eta efektu horiek dagoeneko erabiltzen ez direlako.

Era berean, prozedura berriak sartu dira zergan, hala nola notario-indizetik eratorritako informazio errekerimenduak eta efektu tinbredunen truke arrunta.

Azkenik, esan behar da foru arau hau 2011ko apirilaren 1ean jarriko dela indarrean.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA IZAERA ETA EDUKIA

1. artikulua. Zergaren modalitateak.

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga zeharkako zerga bat da, ondoren azalduko diren artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako egintza hauek zergapetzen dituen:

1.a. Kostubidezko ondare eskualdaketak.

2.a. Sozietate-eragiketak.

3.a. Egintza juridiko dokumentatuak.

2. Ezein kasutan ezingo da egintza bera aldi berean likidatu kostubidezko ondare eskualdaketen kontzeptuan eta sozietate-eragiketenean.

Egintza bati dagokion zergaren likidazioa bi kontzeptu horietan egin ahal denean, sozietate-eragiketen modalitatearen ondoriozko zergapetzeak izango du lehentasuna, berariaz besterik adierazi ezean.

3. Kasu batean bakarrik izango dira bateraezinak egintza edo kontratu bat kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean edo sozietate-eragiketen modalitatean zergapetzea eta haren agiri-euskarria egintza juridiko dokumentatuenean zergapetzea: zerga araupetzen duten arauetan berariaz hala ezartzen denean.

2. artikulua. Egintza edo kontratuaren kalifikazioa.

1. Foru arau honek arautzen duen zerga egintza likidagarriaren edo kontratu likidagarriaren benetako izaera juridikoaren arabera eskatuko da, alderdiek emandako izena edozein dela ere, eta haren baliagarritasunari eta eraginkortasunari eragin diezaioketen forma-akatsak zein barne-barneko akatsak kontuan hartu gabe.

2. Baldintzaren bat duten kontratu edo egintzetan, kalifikazioa Kode Zibilean eta funtsezko arau zibiletan dauden preskripzioen arabera egingo da. Baldintza hori etengarria izanez gero, zerga ez da likidatuko harik eta baldintza bete arte, eta likidazioaren gerorapena dagokion erregistro publikoan agerraraziko da, ondasunen inskripzioan. Baldintza suntsiarazlea izanez gero, zerga eskatuko egingo da, baina horren asmoa zera izango da: baldintza betetzen denean, itzulketa foru dekretu honen 74. artikuluko arauen arabera egitea.
3. Kontratuan ezartzen bada hitzartutako prezioa osorik ordaindu arte jabaria erreserbatu egongo dela, zergaren likidazioari eta ordainketari dagokionez eskualdaketa baldintza batekin egiten dela ulertuko da: prezioa hitzartu bezala ordaindu ezean, kontratua suntsiarazi egingo dela.
4. Nahiz eta interesdunek hala agerrarazi, egintza edo kontratuaren eraginkortasuna administrazioaren baimen edo onespen baten arabera izatea ez da suntsiarazpen-baldintzat joko, baimen-onespenok aginduzkoak izan arren. Itzultzeko eskubidea edukiz gero, ez da etengo.

3. artikulua. Ondasunen kalifikazioa.

1. Aurreko artikuluan xedatutako ondorioetarako, zergapeko ondasunak beren izaeraren, xedearen, erabileraren edo aplikazioaren arabera juridikoki kalifikatzeko, Zuzenbide Zibilak xedatzen duena beteko da, edo, halakorik ezean, Administrazio Zuzenbideak horri buruz xedaturikoa.
2. Zerga ordaintzeko, ondasun higieztzat hartuko dira modu iraunkorrean ezarritako instalazio guztiak, nahiz eta itxuragatik garraiarri izan eta haiek dauden lurra beren jabearenak izan ez.
3. Halaber, ondasun higieztzat hartuko dira beren xedeagatik edo ezaugarriengatik ibai edo laku bateko edo kostaldeko leku finko batean egon behar duten ontziak.

Era berean, ondasun higieztzat hartuko dira higiezt baten jabeak higiezt horretan egiten den industriarako edo ustiapenerako dituen makinak eta tresnak, nahiz eta makina-tresna horiei emandako balioak eta higieztinari emandakoak ezberdinak izan.

4. artikulua. Negozio juridikoak pilatzea.

1. Negozio juridiko bati ezin eska dakioke eskubide bat baino gehiago ordaintzea, baina agiri edo kontratu batek zerga beraren pean baina bereizita dauden negozio batzuk biltzen dituzenean, haietariko bakoitzari dagokion eskubidea eskatuko da, beste zerbait adierazten den kasuetan izan ezik.
2. Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, negozio juridikoaren agiri-euskarria zergapetu egin daiteke, foru dekretu honen 1. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik.

5. artikulua. Eskualdatutako ondasunak lotzea.

1. Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak, edozein dela ere haien edukitzailea, eskualdaketa zergapetzen duten zergak ordaindu beharri loturik egongo dira, salbu eta edukitzailea erregistroko fede publikoak babesturiko hirugarren bat denean edo, ondasun higikor inskribaezinen kasuan, merkataritzako edo industriako establezimendua fede onez eta bidezko tituluz eskuratu dela frogatzen denean. Lotura hori notarioek agerrarazi beharko dute, eskuesten dituzten agirietan dagokion ohartarazpena jarritik. Erregistroan lotura berariaz jasota dagoenean, ordea, gorago aipatu den hirugarren hori ez da egongo erregistroko fede publikoaren babespean.
2. Zergapeko batek aurkezten duen likidazioa kontuan hartuta, jabetzaren erregistratzaileek edo merkataritzakoek ofizioz agerraraziko dute halakoetan zergarekiko lotura adierazteko

aurrez ikusiten den orri-bazterreko oharra. Ohar horretan, zerga ordaindu dela edo zergarekiko loturarik ezaren nahiz harekiko salbuespenaren alegazioa jasoko dira.

3. Salbuespen bat, hobari bat edo bestelako zerga-onuraren bat ematen denean, zergadunak betekizunen bat bete behar badu onura horiek behin betiko izan daitezten eraginkor, zerga-administrazioak zera jaso behar du zerga-onura agerrarazten den oharrean: onura hori lortzeko, goian aipatutako betekizuna bete behar dela.

Jabetzaren erregistratzaileek edo merkataritzakoek orri-bazterreko ohar baten bidez adieraziko dute ezen, titularra zeinahi dela ere, eskualdatutako ondasunak zerga ordaintzeari lotuta daudela, baldin eta ez badira epearen barruan betetzen onurak eman zituen arauan onurok behin betiko emateko eskatzen ziren betekizunak.

4. Hala ere, zerga-administrazioak ordaintzeko loturari buruzko oharra indargabetzeko baimena eman ahalko du, aurretiaz egiaztatu ondoren bidezkoak direla salbuespena, zergapetuta ez egotea, edo, hala denean, zerga ordaintza.

II. KAPITULU ZERGAREN APLIKAZIO-EREMUA

6. artikulua. Zerga ordainaraztea.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio honako kasu hauetan:

A) Ondare eskualdaketak:

1. Ondasun higiezinaren kostubidezko eskualdaketatik eta errentamenduetan bai eta haien gaineko eskubide errealeen kostubidezko eraketa eta lagapenean (are berme eskubideenean ere), baldin eta ondasunak Bizkaiko lurraldean badaude.

Baloreen Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 314. artikuluan ageri diren kasuetan, eskualdatzen diren baloreei dagokien entitatearen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak Bizkaiko lurraldean daudenean (testu bategin hori 2015eko urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

2. Ondasun higikorren, abereen eta kredituen kostubidezko eskualdaketatik, bai eta haien gaineko eskubideen kostubidezko eraketa eta lagapenean, baldin eta, eskuratzailerak pertsona fisikoa izanik, haren ohiko egoitza Bizkaian badago, edo, hura pertsona juridikoa izanik, zerga-egoitza lurralde honetan badu.

Goian adierazi dena gorabehera, bi salbuespen hauek ezartzen dira:

- a) Akzioen, harpidetza-eskubideen, obligazio eta antzeko tituluen eta gainerako baloreen eskualdaketatik, baita sozietateen partaidetzetan ere, baldin eta eragiketarik Bizkaian egiten badira.
 - b) Itsasontzi edo aireontzien gaineko higigarrien hipoteka edo eskualdatzerik gabeko bahiak eratzen direnean, baldin eta egintza horiek Bizkaian inskribatu behar badira.
3. Mailegu xeheak, fidantzak, higiezin ez diren errentamenduak eta pentsioak eratzen direnean, mailegu-hartzaileak, fidantza-hartzaileak, errentariak edo pentsiodunak, pertsona fisiko izanik, ohiko egoitza Bizkaian badu, edo, pertsona juridikoa izanik, zerga-egoitza lurralde honetan badu.

Hala ere, berme erreala duten maileguen kasuan, hipotekatutako ondasun higiezinak Bizkaiko lurraldean daudenean, edo higigarrien hipotekak edo lekualdaketarik gabeko bahiak lurralde honetan inskribatu ahal direnean.

Mailegu baten bermea Bizkaian eta beste lurralde batean (foralean edo erkidean) dauden ondasun higiezinaren gaineko hipoteka bat bada edo Bizkaian eta beste lurralde batean inskribatu ahal den higigarrien hipoteka edo lekualdaketa gabeko bahia bada, batzuei eta besteei ezarritako erantzukizunaren arabera ordainduko dio administrazio bakoitzari, edo, eskrituran erantzukizuna berariaz zehaztu gabe badago, ondasunen balio egiaztatuen arabera.

4. Ondasunen administrazio emakiden kasuan, ondasunok Bizkaiko lurraldean baldin badaude, eta obra burutzapenetan eta zerbitzu-ustiapenen kasuan, Bizkaian egiten edo ematen baldin badira. Arau horiek administrazio emakidekiko parekatzeagatik ordaintzen duten egintza eta negozio administratiboetan ere aplikatuko dira.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzen duten ondasunen ustiapenen emakidak direnean, Bizkaiko lurraldean hartzen duten azaleraren arabera kobratuko da zerga.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzen duten obrak egiteko emakiden kasuan, Bizkaiko lurraldean egingo diren obraren zenbateko balioetsiaren arabera kobratuko da zerga.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzen duten zerbitzu-ustiapenen emakidak direnean, haiei dagozkien biztanleriak eta azalera zerbitzu-ustiapen horietan inplikaturako gainerako lurraldeen azalera guztian duten portzentajeen batez besteko aritmetikoaren arabera kobratuko da zerga.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzen duten emakida mistoen kasuan, emakidari dagokion zatiari aurreko hiru lerroketan jasotako irizpideak aplikatuta kobratuko da zerga.

Bizkaiko lurralde eremua gainditzen duten administrazio emakiden kasuan, zergaren ikuskapena Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du, erakunde emakidadunaren zerga-egoitza Bizkaian badago.

B) Sozietate-eragiketak:

Honako inguruabar hauetarikoren bat gertatzen denean:

1. Erakundearen zerga-egoitza Bizkaian egotea.
2. Erakundearen sozietate-egoitza Bizkaian egotea, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko zerga-administrazioaren lurralde-eremuan ez badago, edota, halako batean egonik ere, estatu horrek sozietate-eragiketara antzeko zerga batekin zergapetzen ez badu.
3. Erakundeak bere trafiko-eragiketak Bizkaian egitea, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza eta sozietate-egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko zerga-administrazioaren lurralde-eremuan ez badaude, edota, halako batean egonik ere, estatu horrek sozietate-eragiketara antzeko zerga batekin zergapetzen ez badu.

C) Egintza juridiko dokumentatuak:

1. Notarioen eskriturretan, aktetan edo lekukotzetan, baldin eta Bizkaiko lurraldean baimentzen edo egilesten badira.

Aurreko paragrafoan adierazi dena gorabehera, egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergapetzearen kuota gradualari lotutako kasuetan, Bizkaian dagoenean ondasunak edo egintzak inskribatu behar diren edo haien idatzoharra egin behar den erregistroa.

2. Kanbio-letretan edo haien ordezkotza gisa erabiltzen diren edo igorpen funtzioak betetzen dituzten agirietan, bai eta ordaindukoetan, bonoetan, obligazioetan eta titulu baliokideetan ere, baldin eta haien igorpena Bizkaiko lurraldean egiten bada, eta,

atzerrian egiten denean, lehenbiziko edukitzailearen ohiko egoitza edo zerga-egoitza lurralde horretan badago.

3. Aurreneurritzko idatzoharretan, Bizkaian dauden erregistro publikoetan egiten direnean.

7. artikulua. Ohiko egoitza eta zerga-egoitza.

Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko:

- A) Pertsona fisikoek ohiko egoitza Bizkaian dutela ulertzeko, hurrenez hurren honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Pertsona fisikoaren ohiko egoitza Bizkaian egongo da, baldin eta, zerga sorrarazten den egunaren bezperatik atzerako urtean zehar Euskal Herrian beste inon baino egun gehiago egonik, Bizkaian ematen baditu beste bi lurralde historikoetan baino egun gehiago.

Egonaldien egun kopurua zehazteko, aldi baterako absentziak zenbatuko dira.

Besterik frogatu ezean, pertsona fisikoa Bizkaiko lurraldean dagoela uste izango da haren ohiko egoitza lurralde horretan dagoenean.

2. Interesen gune nagusia Bizkaian baldin badu.

Pertsona fisiko batek interesen gunea Bizkaian duela ulertuko da, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian lortzen badu eta oinarri horren zatirik handiena Bizkaiko Lurraldean lortzen badu. Dena dela, bai lehenengo baldintza zehazteko bai bigarrenerako, kanpoan utziko dira higikorren kapitalaren errentak eta ondare irabaziak eta egotzitako zerga-oinarriak.

3. Bizkaian baldin badago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzeko aitortu duen azken egoitza.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta, lehenengoan xedatutakoari jarraiki, ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan -erkide zein foraletan-kokatzea. Hirugarren araua inguruabar bera gertatzen denean aplikatuko da, lehen eta bigarren arauetan xedatutakoa aplikatu ondoren.

- B) Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoak Euskal Herriko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta ez badituzte lurralde horretan pasatzen egutegiko urtean 183 egun baino gehiago eta Euskal Herrian egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak, edo han badituzte beren ekonomi interes gehienak.

Aurreko lerrokadan jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Herrian badago, pertsona fisiko horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanletzat joko dira, baldin eta haien enpresa edo lanbide jardueraren edo interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan kokatzen bada.

- C) Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada -ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dutelako hala haren ezkontideak (legez bereizita ez badago) nola haren mendeko seme-alaba adingabeek-, pertsona fisiko horren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Uste horren aurka frogak aurkez daitezke.

- D) Egoitza-aldaketek ez dute ondorerik izango, haien helburua zergengatik gutxiago ordaintzea denean.

- E) Pertsona juridikoen zerga-egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da, baldin eta sozietate-egoitza lurralde horretan badute eta administrazio-kudeaketa osoa eta negozioen zuzendaritza bertan zentralizaturik badaude. Bestelako kasuetan, kudeaketa edo zuzendaritza lan hori egiten den lekua izango da.

Aurreko irizpideen arabera zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, pertsona juridikoek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Bizkaian duten ibilgetuaren balioa beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan dutena baino handiagoa bada.

- F) Establezimendu iraunkorrek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza lurralde horretan egiten denean. Irizpide horren arabera egoitza zehazterik ez dagoenean, ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da egoitzatzat, aurreko E) letraren azken lerrokadaren irizpidea aplikatuz.
- G) Elkarte zibilek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan egiten bada. Lehen aipatutako irizpidea (zuzendaritza eta kudeaketa) aplikatuta elkarte zibilen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren balio handiagoa badute.

8. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Kapitulu honetan xedatutakoa gorabehera, beti bete beharko da Espainiako estatuak sinatu eta berretsi dituen nazioarteko itun eta hitzarmenetan edo hura atxikitzen denetan xedatzen dena.

I. TITULUA ONDARE ESKUALDAKETAK

I. KAPITULUA ZERGA-EGITATEA

9. artikulua. Zergapeko eskualdaketak.

1. Zergapean dauden ondare eskualdaketak dira:

- a) Inter vivos egintzen bidez egiten diren honako ondasun eta eskubide hauen kostu bidezko eskualdaketak: pertsona fisiko edo juridikoen ondarearen barruan sartzen diren mota guztietako ondasun eta eskubideak.

Bereziki, hemen sartuko dira foru arau honetako 13. artikuluko f) letraren 1. zenbakian aipatzen diren eskualdaketak, ondasunak edo eskubideak beren jardunerako eskuratzen dituzten enpresaburuek edo profesionalek eginak badira.

- b) Eskubide errealen, maileguen, fidantzen, errentamenduen, pentsioen eta administrazio-emakiden eraketa. Dena dela, administrazio-emakidetan salbuespen bat dago: tren-azpiegiturak edo higiezinak edo portu eta aireportuetako instalazioak erabiltzeko eskubidea lagatzeko egiten direnak.

Eskubideen edukia zabaltzea eskubide-eraketa gisa likidatuko da, baldin eta titularrarentzat ondare gehikuntza badakar. Ondare gehikuntza hori zergapetzearen oinarria izango da.

2. Zergaren likidazioaren eta ordainketaren ondorioetarako, ondare eskualdaketatzat joko dira:

- a) Zorren ordainetan jasotako adjudikazioak eta zorrak ordaintzeko egiten direnak, bai eta zorrak bereganatzearen ordainetan berariaz jasotako adjudikazioak ere. Zorrak ordaintzeko adjudikazioen hartzaileek adjudikazio horiengatik ordaindutako zerga itzultzeko eskatu ahalko dute, bi kasutan: batetik, baldin eta frogatzen badute eurei adjudikatu zitzaizkien ondasun eta eskubideak beste hartzekodun bati eskualdatu dizkietela urte biko epean, kredituaren kaudimena bermatzeko; edo, bestetik, baldin eta

frogatzen badute ondasun-zerbitzuok, goiko epe berean eta xede horrexetarako, hirugarren bati eskualdatu dizkiotela.

- b) Aitortutako adjudikazio-gaindikinak, salbu Kode Zibilaren 821., 829., 1.056. (bigarrena) eta 1.062. (lehenengoa) artikuluetan edo funts berean oinarritutako Euskal Zuzenbide Zibilaren xedapenetan xedatutakoa betez sortzen direnak, eta bereziki Euskal Zuzenbide Zibilean araututa dagoen baserriaren eta haren jabegoaren doako eskualdaketatik sortzen direnak.
- c) Jabari-espeditenteak, nabaritasun-aktak, Hipotekei buruzko Legearen VI. tituluak aipatzen dituen agiri publikoen akta osagarriak eta lege beraren 206. artikulua betetzeko ematen diren ziurtagiriak, baldin eta ez bada frogatzen eskualdaketari dagokion zerga ordainduta dagoela, edo eskualdaketa hori salbuetsita dagoela edo ez dagoela zergapean, eta baldin eta eskualdaketaren titulua espeditente-agiriok ordeztzen badute eta eskualdaketa espeditente-agirion xede diren ondasun berengatik egiten bada. Hori horrela da salbu eta preskripzioari dagokionez, haren epea espeditente, akta edo ziurtagiria ematen denetik konputatuko baita.
- d) Pertsona jakin baten aldeko jabari-aintzatespenak, aurreko idatz-zatian egindako salbuespen berarekin, eta are Hipotekei buruzko Legearen 200. artikuluan eta haren Araudiaren 298. artikuluan araututako edukiera-gaindikinak ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ez dira zergapean egongo kasuan kasuko elementuaren azalera zuzentzeko besterik ez diren edukiera-gaindikinak, zeinak Hipotekei buruzko Legea betearazteko araudiaren 298. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen baitira.

Halaber, ez dira zergapetuko Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak emandako katastroko zenbaki finko bat duten ondasun higiezinetan agertzen diren edukiera-gaindikinak.

Aurreko bi lerroketan adierazitakoa gorabehera, zergapean egongo dira zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien kuota gradualaren araberrako edukiera-gaindikinak aitortzen dituzten eskritura publikoen lehenengo kopiak, foru dekretu honen 44. artikuluan horretarako ezarritako betekizunak betetzen direnean.

- e) Ondasun higiezinaren adjudikazioak, baldin eta, sozietatea desegitean edo haren kapitala gutxitzean, ondasunak ekarri zituen bazkidea ez den beste bati adjudikatzen bazaizkio, eta higiezina ekarri zenetik sozietatea desegin arte edo kapitala gutxitu arte lau urte baino gutxiago igaro badira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa betetzeko, sozietatetzat joko dira foru dekretu honen 34. artikuluan aipatutako erakundeak.

Halaber, idatz-zati honetako aurreko bi lerroketan xedatutakoa aplikatu behar denean, ez da kontuan hartuko ondasun higiezinaren balioa dena delako kapital gutxitzeari edo sozietate desegiteari dagokion zerga-oinarria ezartzeko, foru arau honetako 37. eta 38. artikuluetan adierazitako sozietate-eragiketen gaineko zergapetzearen ondorioetarako.

Halako kasuetan, goian aipatutako ondasun higiezinaren balioa hartuko da kontuan, eta, kostubidezko ondare-eskualdaketen modalitatean, balio horixe izango da zerga-oinarria, foru arau honetako 12. artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta foru arau honetako 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik ordainduko da zerga.

- 3. Salerosketak suntsiarazteko ageriko baldintzak eta geroratutako prezioaren ordainketa saldutako finka berarekin bermatzen duten hipotekak parekatu egingo dira. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zergapeko diren eta hartatik salbuetsita ez dauden ondasun higiezinaren eskualdaketetan geroratutako prezioaren ordainketa bermatzen duten suntsiarazteko ageriko baldintzek ez dute kostubidezko ondare eskualdaketa gisa

ordainduko ez zerga hori ez Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko dokumentatuen gaineko Zerga. Araubide bera aplikatuko zaie aipatu berri diren ondasun higiezin eskualdaketen geroratutako prezioa bermatzeko eskualdatutako ondasunen gainean eratutako hipotekei.

Baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita geratzearen ondorioz ondasun higiezin enpresa-eskualdaketek kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatearen arabera ordaintzen badute zerga, modalitate horren arabera ordainduko da ere geroratutako prezioaren berme gisa salerosketa suntsiarazteko ageriko baldintzaren eraketa, baldin eta zergapetzea pertsona edo erakunde eratzailaren izaeraren ondorioz bada.

4. Zerga honen ordainketarako, apartzeria-kontratuak eta azpierrentamendukoak errentamendukoekin parekatuko dira.
5. Goian aipatutako eragiketak ez dira sartuko titulu honetan araututako kostu bidezko ondare-eskualdaketen, baldin eta eskualdatzailea enpresaburu edo profesional bat bada eragiketa horiek bere jardura enpresarial edo profesionalaren barruan egiten dituen eta, inoiz ere ez, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zergapeko ondasun- emateak edo zerbitzu-prestazioak badira.

Aurreko lerrokan xedatutakoa gorabehera, zerga kontzeptu horren barruan daude honako hauek:

- a) Ondasun higiezin emateak edo errentamenduak, bai eta haiek erabiltzeko eta gozatzeko eskubide errealean eraketa eta eskualdaketa ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita daudenean.
- b) Subjektu pasibo baten enpresa- edo lanbide-ondarearen gauzako elementuen eta (halakorik baldin bada) ukiezin eskualdaketen sartuta dauden higiezin emateak, baldin eta enpresa- edo lanbide-jardura batean modu autonomoan aritzeko aukera ematen duen unitate ekonomiko autonomoa osatzen badute eta baldin eta, kasuan kasuko inguruabarrengatik, ondare horren eskualdaketa Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharrik ez badu.

Idatz-zati honetan aipatutako kasuetan, gorago azaldu den eskualdaketa higiezin bestelako ondasunen eta eskubideen emateak ez dute titulu honetan araututako kostubidezko ondare eskualdaketei dagokien kontzeptua ordaindu beharko.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko konkurtso-prozeduren barruan egiten diren ekoizpen-unitateen eskualdatzei, baldin eta eskuratzailea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zergadun bat bada, eskubidea izango lukeena ekoizpen-unitate horietan sartuta dauden higiezin ematei dagokien kuotaren kenkari osorako, unitateok zerga horri lotuta eta salbuetsi gabe baleude.

II. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOA

10. artikulua. Zergaduna.

Honako hauek nahitaez ordaindu behar dute zerga zergadun gisa, alderdiek aurka ezarritako xedapenak gorabehera:

- a) Edozein motatako ondasun eta eskubideen eskualdaketen, ondasun-eskubideok eskuratzen dituen.
- b) Jabari-espedienteetan, nabaritasun-aktetan, agiri publikoen akta osagarrietan eta Hipotekei buruzko Legearen 206. artikuluan aipaturiko ziurtagirietan, agiriok eragiten dituen pertsona; baina, pertsona jakin baten aldeko jabari-aintzatespenetan eta edukiera-gaindikina adierazten denean, aintzatespenaren edo adierazpenaren onura jasotzen duen pertsona.

- c) Eskubide errealak eratzen direnean, egintzaren onura jasotzen duen pertsona.
- d) Edozein motatako maileguak eratzen direnean, mailegu-hartzailea.
- e) Fidantzak eratzen direnean, fidantzuriko hartzekoduna.
- f) Errentamenduak eratzen direnean, errentaria.
- g) Pentsioak eratzen direnean, pentsioduna.
- h) Administrazio emakidan, emakidaduna.
- i) Emakidarekin parekatutako administrazio egintza eta kontratuetan, onuraduna.
- j) Desjabetze-eskubidea lagatzen denean, lagapen-hartzailea.

11. artikulua. Erantzule subsidiarioak.

Zerga ordaindu beharraren erantzule subsidiarioak izango dira:

- a) Maileguen eraketan, mailegu-emailea, baldin eta interesak edo kapitala edo maileguan emandako gauza osorik edo zati batez hartzen baditu, mailegu-hartzaileari zerga ordaindu izanaren ziurtagiria eskatu gabe.
- b) Errentamenduen eraketan, errentatzailea, baldin eta errentaren lehen epeko kopurua jasotzen badu, errentariari aurreko ziurtagiri bera eskatu gabe.

III. KAPITULUA ZERGA-OINARRIA

12. artikulua. Zerga-oinarria zehaztea.

1. Eskualdatzen den ondasunaren edo eratu edo lagatzen den eskubidearen balio errealaren araberakoa izango da zerga-oinarria. Oinarri horretatik, ondasunen balio errealak gutxitzen duten kargak soilik kendu ahalko dira; zorrak, ordea, ezingo dira kendu, nahiz eta bahi edo hipoteka bidez bermatuta egon.

2. Zehazki, honako atal hauetan jasotako arauak aplikatuko dira:

- a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen guztirako balioaren proportzionala izango da, %2 hartuta urtebeteko aldi bakoitzeko, baina %70 gainditu gabe.

Bizi bitarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren %70 izango da, gozamendunak hogeitun urte baino gutxiago dituenetan. Zenbat eta zaharragoa izan, urte bakoitzeko %1 txikituko da balioa; nolana ere, balioa ondasunen balio osoaren %10 izango da gutxienez.

Pertsona juridiko batentzat eratutako gozamena, hogeita hamar urte baino gehiagorako ezartzen bada edo mugaegunik gabea bada, suntsiarazpen-baldintzari loturiko jabetza osoaren eskualdaketatzat joko da zergei dagokienez.

Jabetza soileko eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen guztirako balioaren arteko diferentzia izango da. Aldi berean bizi bitarteko eta aldi baterako diren gozamenetan, jabetza soila baloratzeko, aurreko erregeletatik baliorik txikiena sortzen duena aplikatuko da.

- b) Erabiltze- eta biztante-eskubide errealen balioa zehazteko, aldi baterako edo bizi bitarteko (kasuan kasukoa) gozamenak baloratzeko erregelak aplikatuko zaizkio eskubideok eratzen dituzten ondasunen balioaren %75ari.

- c) Hipotekak, bahiak eta antikresiak bermaturiko betebeharrak edo kapitalaren zenbatekoan baloratuko dira; horren barruan, interesengatik aseguratzen diren kopuruak (bost urtez gehienez), kalte-ordainak eta ez betetzeagatik ezartzen diren zehapenak edo antzeko kontzeptuak sartuko dira. Bermaturiko kopurua berariaz adierazi ez bada, kapitala eta hiru urteko interesak hartuko dira oinarritzat.

Maileguaren berme gisa eraturako hipoteka kitatzen denean, foru dekretu honen 44. artikuluan aipaturako egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergapetze gradualerako kontuan hartu beharreko zerga-oinarria txikitu egingo da, bermaturako maileguaren zenbateko izendunarekin parekatzeraino.

- d) Aurreko idatz-zatietan ageri ez diren eskubide errealak alderdiek eratzean itundutako kapital, prezio edo balioan egotziko dira, baldin eta kopuru hori urteko errenta edo pentsioa diruaren legezko interes-tasaren arabera kapitalizatuz sortzen denaren berdina edo handiagoa bada; ordea, sortzen den kopuru hori aurrean adierazitako kapital, prezio edo balioa baino txikiagoa bada, bera egotziko da. Hala ere, 60. artikuluan eta hurrengoetan xedaturakoaren arabera administrazioak egindako egiaztapenak balio handiagoa ezar dezake.
- e) Errentamenduetan, oinarri gisa erabiliko da kontratuaren iraunaldian ordaindu beharreko hileko batez besteko errentarekin bat datorren kopurua.

Idatz-zati honetan ezarritakoa betetzeko, hileko batez besteko errenta hauxe izango da: errentariak errentatzaileari -ordainketaren kontzeptua edozein izanda ere, itundu den edo legezkoa den kontratu-denboraldi osoan- errentamendu-kontratu horrengatik ordaindu beharreko kopuru guztia, diruzkoa zein gauzazkoa, batu ostean eta errentamenduak iraun dituen hilabetetan zatitu ondoren lortu den kopurua. Ondorio horretarako, ez dira aintzat hartuko hilabetea baino denbora-zatik txikiagoak.

Errentamendu-kontratua hilabete baino gutxiagorako itundu bada, kopurua proportzioan igo beharko da, kontratu horri dagokion hileko batez besteko errenta finkatzeko.

Idatz-zati honetan xedaturakoa betetzeko, aintzat hartu beharko dira kontratuari ezarri ahal zaizkion luzapenetatik, legez edo kontratu bidez, sor litezkeen errentaren aldaketa posibleak.

Legez etxebizitza-errentamenduetan jotzen diren hiri-finken errentamendu-kontratuetan, bost urteko epean ordaindu ahal diren kopuru-multzoak kontuan hartuta ezarri beharko da hileko batez besteko errenta, eta idatz-zati honek bigarren lerrokadan finkaturako araua ezarri.

- f) Pentsioen zerga-oinarria honela kalkulatu da: diruaren legezko interes-tasaren arabera kapitalizatuko dira pentsioak, eta eragiketa horren ondorioz ateratzen den kapitaletik, gozamenak baloratzeko ezarritako erregelen arabera pentsiodunaren adinari dagokion zatia hartuko da, baldin eta pentsioa bizi bitartekoa bada, edo, bestela, pentsioaren iraupenari dagokion zatia hartuko da, pentsioa aldi baterako bada. Pentsioaren zenbatekoa moneta unitatetan zenbatzen ez bada, zera egingo da zerga-oinarria kalkulatzeko: gutxieneko soldataren urteko zenbatekoa diruaren legezko interes-tasaren arabera kapitalizatu.

Idatz-zati honetan ezarritakoa betetzeko, urteko bati dagokion kopurua kapitalizatuko da.

- g) Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzen diren baloreen eskualdaketetan, zerga-oinarria zera izango da: eskuratzen diren eguneko balore horiek duten kotizazioaren araberrako benetako balioa, edo, bestela, aurreko hiruhilekoaren barruan, baloreek negoziatu izan diren azken eguneko kotizazioaren araberrakoa.

Beren tituluak bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzen jartzen ez dituzten erakundeen sozietate-kapitaleko partaidetzen eskualdaketetan, zerga-oinarria

onartutako azken balantzetik sortzen den balio teorikotik aterako da, baldin eta balantze hori, nahitaez zein borondatez, berrikusia eta egiaztatua bada, eta auditoria-txostena aldekoa bada. Dena den, administrazioak egiaztapena egin ahalko du geroago.

Gainerako balore negoziagarrietariko bat eskualdatzen denean, oinarria haren balio nominala izango da.

- h) Obra-, zerbitzu- edo hornidura-kontratu baten ondoriozko eskubideak kontratuaren adjudikaziodunari eskualdatzen zaizkionean kostu bidez, zerga-oinarria hitzartutako prezioa izango da, eta prezio hori zehaztu ez bada edo txikiagoa bada, egin gabe dagoen kontratuaren prestazioari finkatutako prezioaren %6.
- i) Ur publikoen aprobetxamenduak Jabetzaren Erregistroan zein erregistro administratiboetan inskribatzeko egilesten diren nabaritasun-aktetan, zerga-oinarria izango da ur horien onura hartzen duten lurrei esleitutako aberastasun ezargarria %16 kapitalizatuta sortzen den balioa.
- j) Landalurreko finken apartzeria-kontratuetan, zerga-oinarria honako hau izango da: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan kontratuaren xede den finkari ezartzen zaien katastroko balioaren %3 bider kontratuak dirauen urteen kopurua.
- k) Mailegu-hartzailearen berme pertsonala besterik ez duten maileguetan, fidantza bidez segurtatutakoetan, zorra onartzeko kontratuetan eta ordaindutako gordailuen kontratuetan, betebeharraren kapitala edo gordailutako gauzaren balioa izango da zerga-oinarria. Kreditu-kontratuetan, mailegu-hartzaileak benetan erabili duen kopurua izango da oinarria.

Bahi, hipoteka edo antikresi bidez bermatutako maileguetan, artikulua honetako c) idatzatian xedatutakoa beteko da.

- l) Zergapeko kontratuen agintzak eta aukerak kontratuekin eurekin parekatuko dira, eta zerga-oinarria hitzartutako prezio berezia izango da, edo, prezio berezirik ez badago edo txikiagoa bada, kontratuei aplikatu beharreko oinarriaren %5.
- m) Ondasunak eta eskubideak atzera-eskuratzeke klausularekin eskualdatzen direnean, zerga-oinarria aitortutako prezioa izango da, baldin eta haien balio egiaztatuaren bi herenen adinekoa edo handiagoa bada. Atzera eskuratzeke eskubidea eskualdatzen denean, zerga-oinarria aipatu balioaren herena izango da, aitortutako balioa handiagoa izan ezean.

Atzera eskuratzeke eskubidea erabiltzen denean, atzera eskuratzen diren ondasun edo eskubideen balio egiaztatuaren bi herenak hartuko dira zerga-oinarritzat, baldin eta atzera egitearen prezioaren adinekoa edo handiagoa bada.

IV. KAPITULUA ZERGA-KUOTA

13. artikulua. Karga-tasa.

Zerga-kuota lortzeko, honako tasa hauek aplikatuko zaizkio likidazio-oinarriari, hurrengo artikuluan ezarritakoa gorabehera:

- a) 100eko 7 aplikatuko da, ondasun higiezinaren eskualdaketetan eta haien gaineko berme-eskubide errealeen eraketan eta lagapenean (salbuespena: berme-eskubide errealeen eraketa eta lagapena).
- b) Goiko paragrafoan xedatutakoak badu albuespen bat: oro har, etxebizitzaren eskualdaketek %4ko karga-tasa izango dute, eta haien barruan sartuko dira bai garaje plazak (gehienez bi unitate) eta bai etxebizitzaren eranskinenak ere, baldin eta denak eraikin berekoak badira,

eta denak batera eskualdatzen badira. Nolanahi ere, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitzaren eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Halaber, %4ko karga-tasa izango dute etxebizitzaren, haien garaje plaza (gehienez bi unitate) eta eranskinen gaineko eskubide errealeen eraketak eta lagapenak (salbu bermeko eskubide errealeenak), baldin eta denak eraikin berekoak badira, eta denak batera eskualdatzen badira. Horrez gainera, karga-tasa beraz ordainduko da etxadiaren eta haren jabegoen jabari osoa edo haien bizi bitarteko gozamina enborreko ahaideei kostu bidez eskualdatzea, zeina Euskal Zuzenbide Zibilean arautzen baita.

- c) Aurreko bi idatz-zatietan xedaturikoa gorabehera, %2,5eko karga-tasa izango dute etxebizitzaren, haien garaje plaza (gehienez bi unitate) eta eranskinen eskualdaketez, baldin eta denak eraikin berekoak badira eta denak batera eskualdatzen badira, eta baldin eta haien eskuratzaila familia ugariaren titularra bada edo honako kasu hauetarikoren batean badago:
- Eskualdatutako etxebizitzaren azalera eraikia ez da 120 metro koadrotik gorakoa, eskuratzaila-kopurua edozein izanda ere.
 - Eskualdatutako etxebizitzaren familia bakarrekoa da; ez du 120 metro koadrotik gorako azalera eraikirik, eta haren parte-laren azalera (eraikinak hartzen duen zatia, barne) ez du 300 metro koadro baino gehiago, eskuratzaila-kopurua edozein izanda ere. Familia bakarreko etxebizitzatzen joko da sarrera independentea duena; isolatua, binakakoa, atxikia edo ilarakoa izan daiteke.

Azalera eraikia, berriz, hemen definitutakoa izango da: Hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatze arau teknikoetako 5. arauko 3. zenbakia (arauok 2013ko abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren). Letra honetan jasotako ondorioetarako, negozio-lokalak ez dira hartuko etxebizitzaren-eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu. 100eko 2,5eko tasa aplikatzeko, beharrezkoa da honako baldintza hauek betetzea:

1. Eskuratzailak tasa hori lehenago aplikatu ez izana etxebizitzaren horren edo beste baten eskuraketan, eskuratzutako titulartasun-portzentajea edozein izanda ere.
2. Etxebizitzaren eskuratzailaren ohiko etxebizitzaren legez erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoarekin bat etorritik. Etxebizitzaren eskuratzailaren ohiko etxebizitzaren legez erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Etxebizitzaren eskuratzutako denetik hamabi hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da baldintza hori betetzen dela frogatzen duen dokumentazioa. Hori egiaztatze, Zuzenbidean onartuta dauden frogabideak erabil daitezke. Nolanahi ere, preskripzio epearen barruan egiaztatzen bada etxebizitzaren ez dela ohiko etxebizitzaren legez erabiltzen, tasa 100eko 4ra igoko da.

Zergapekoa pertsona fisikoa bada eta jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoen lokal bat etxebizitzarako egokitzen bada, Zerga Administrazioak aurretik egin zaion eskaerari erantzunez itzuli egingo du bi kopuru hauen arteko diferentzia: batetik, zerga dela- eta benetan ordaindutako zenbatekoa, eta, bestetik, eskualdatutako higiezinari b) eta c) letretan adierazten direnetatik dagokion zerga-tasa aplikatuz ateratzen den kopurua. Nolanahi ere, tasa hori aplikatzeko ezartzen diren baldintzez gainera, zergapekoak eskualdaketa egin denetik 18 hilabete igaro baino lehen egiaztatu behar du (lizen-tzia daukala) lokala etxebizitzaren legez lehenengoz erabiltzeko edo okupatzeko lizentzia daukala. Itzulketa horrek ez du sortuko berandutze-interesik.

- d) Higiezinaren eta abereen eskualdaketez direnean %4 aplikatuko da, baita haien gaineko eskubideak eratu eta lagatzen direnean ere, salbu eta berme-eskubide errealeak eratu eta lagatzen badira edo artikulu honen f) letran ezarritako kasuetako batean bagoaude.

Tasa hori aplikatuko zaie partikularrek turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuekin, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuekin, birsaltze- nahiz truke-kontratuekin eta zerga- arauei buruzko 2012ko uztailaren 6ko 4/2012 Legean jasotzen diren eskubideekin egiten dituzten eskualdaketei, baldin eta eskualdaketa horiek ez badaude lotuta ez Balio Erantsiaren gaineko Zergan edo Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorrean, eskualdatzen dien eskubideen izaera edonolakoa izanda ere.

Era berean, tasa hori artikuluko honen gainerako letretan sartuta ez dauden gainerako egintza lotu guztiei ere aplikatuko zaie.

- e) %1 aplikatuko da, berme-eskubide errealeen eraketa, pentsioak, fidantzak edo maileguak direnean, are obligazio bidezkoak direnean, bai eta mota guztietako kredituen lagapena denean ere.
- f) Tasa %0 izango da, honako baldintza bi hauek betetzen direnean:
 1. Partikularrek enpresaburu edo profesionali ondasun hauekin egindako eskualdaketak badira:
 - Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren eranskinetako zazpigarren zenbakian jasota dauden berreskuratze-materialak.
 - Txatarra bilakatzeko diren ibilgailuak.
 - Urre, platino, harribitxi eta beste metal batzuek egindako objektuak.
 2. Enpresaburu edo profesionalen kasuan inguruabar hauek gertatzen direnean:
 - Ondasunak edo eskubideak beren jardunerako eskuratzen dituzte.
 - Birsaltzaileak dira.
 - Ezin dute aplikatu Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren IX. Tituluko IV. kapituluaren arautzen den araubide berezia.

Ondorio horietarako, enpresaburu edo profesional birsaltzailea izango da pertsona edo entitate bat berak erosi edo inportatu dituen ondasunen emateak egiten dituen, ondasun horiek, gero, beste batek sal ditzan.

14. artikulua. Errentamenduetarako tarifa.

Finken errentamenduak eratzen direnean, zerga eskudirutan ordainduko da, eskala honen arabera:

Zerga-oinarria Hileko batez besteko errentaren zenbatekoa	Zerga-kuota
Tartea, eurotan	Euro
0,00 - 300,00	43,25
300,01 - 900,00	130,00
900,01 - hortik gora	1,50 10 euro edo zatikiko

V. KAPITULUA ARAU BEREZIAK

15. artikulua. Administrazio emakidak.

1. Administrazio emakidek eskubide eraketa gisa ordainduko dute zerga, hain zuzen ere foru dekretu honen 13. artikuluko c) idatz-zatian ezarritako karga-tasaren arabera, zeinahi direla ere haien izaera, iraupena eta ondasunak.

Zergei dagokienez administrazio emakidekin parekatutako administrazio egintza eta negozioen emakidadunak edo onuradunak bere eskubideak eskualdatzen baditu, eskualdatutako eskubideei (higikorrek edo higiezinak) dagokien karga-tasaren arabera ordainduko da zerga.

2. Zerga honen ondorioetarako, administrazio emakidekin parekatutako dira administrazio egintzak eta negozioak, edozein dela ere haien modalitatea edo izena, baldin eta zerbitzu publikoak kudeatzeko ahalmenak ematearen ondorioz edo herri jabari edo erabilerako ondasunen gaineko bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia eratzkitzearen ondorioz norbanakoentzako ondare-aldaketaren bat sortzen bada.
3. Zerga-oinarria zehazteko arau orokorra: emakidak sorrarazitako eskubidearen balio erreala ondoren adieraziko diren erregeletatik emakidadunari ezarritako betebeharren arabera aplikatu ahal direnak aplikatuta finkatuko da:

- a) Administrazioak emakidadunak ordaindu beharreko prezioa edo kanona finkatzen badu, haren zenbatekoa.
- b) Administrazioak emakidadunak aldizka ordaindu beharreko gutxieneko kanona, prezioa, partaidetza edo mozkina zehazten badu eta emakidaren iraupena urtebete baino luzeagoa ez bada, aldizkako prestazioen batura osoa. Emakidak urtebete baino gehiago irauten badu, emakidadunak urtean ordaintzen duen kopurua %10ean kapitalizatuta sortzen den kopurua.

Baldin eta, erregela hau aplikatzeko, urteko kopuru aldakor bat kapitalizatu behar bada (kopuru bat, hain zuzen ere, arrazoi batengatik soil-soilik dena aldakorra: beren eboluzioaren indize objektiboak erreferentziatzen hartzen dituzten prezioak berrikusteko klausulak aplikatzearen ondorio delako), bada, orduan, lehenengo urteari dagokiona kapitalizatuko da. Aldakuntza beste inguruabar batzuen arabera bada, eta haien arrazoi matematikoa emakida egunean ezagutzen bada, kapitalizatu beharreko kopurua emakidadunak emakidak dirauen artean ordaindu behar dituen kopuruen urteko batez bestekoa izango da.

- c) Emakidadunak Administrazioari ondasun jakin batzuk itzuli behar badizkio, itzulketa egunean ondasun horiek duten kontabilitateko balio garbia (zenbatetsia) eta itzulketaren gastuak konputatuko dira. Ondasunen kontabilitateko balio garbia kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergarako onartutako amortizazio-tauletako batez besteko portzentajea aplikatuko da.
4. Emakidaren izaeratik, zerga-oinarria ezin bada aurreko paragrafoko erregelen arabera finkatu, honako erregela hauei jarraituz zehaztuko da:
 - a) Ustiapen, erabilera edo aprobetxamenduari atxikitako aktibo finkoen balioari %2 aplikatuko zaio emakidak dirauen urte bakoitzeko; gutxieneko balioa %10 izango da, eta gehienekoa aktiboaren balioa.
 - b) Aurreko balorazioa ez dagoenean, kasuan kasuko administrazio publikoak adierazitakoa hartuko da.
 - c) Aurreko bi erregela horiek ezean, interesdunek aitorturiko balioa; nolana ere, Administrazioak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005

Foru Arau Orokorraren 55. artikuluan ezarritzen diren bitartekoen bidez egiaztatu ahalko du balio hori.

16. artikulua. Transakzioak eta bestelako kasuak.

1. Transakzioetan, auzitan diren ondasunak edo eskubideak adjudikatzen, aitortzen edo onartzen dituen tituluaren arabera likidatuko da zerga, eta tituluaren berri eduki ezean, kostubidezko eskualdaketaren kontzeptuan.

Zergaren ondorioetarako transakzioa transakziotzat hartzeko, ezinbestekoa da demanda arrunta jarri ondoren egitea. Beraz, auzirik sortu ez bada, eta eskubideen onarpena edo lagapena alderdien arteko hitzarmen publikoaren edo pribatuaren bidez burutzen bada, eta hitzarmena ez bada lehenagoko prozedura judizialen ondorio, eskubideak egintzen kontzeptu juridikoaren zioz likidatuko dira, kontratuaren arabera, alderdiek transakzioaren funts gisa alegatzen dutena kontuan hartu gabe.

Baldin eta transakzioan auzigaiarekin zerikusirik ez duten prestazioak badaude, esaterako pentsioen eraketa, eskubide errealen onarpena, eskudirutan ematea, ondasunen aldaketa edo trukaketa, edo transakzioaren xede diren ondasun edo eskubide erreal guztiei edo batzuei dagokienez demandari ekin zaionean izan den egintzaren izaera edo titulua aldatu duen besteren bat, zerga dena delako kontzeptuaren zioz likidatuko da, egintza edo titulua kontuan hartu gabe.

Prestazioen ondorioz demandaren oinarri den egintza edo titulua aldatzen denean ondasunen zati bati dagokionez eta beste zatiari dagokionez aldaketarik ez badago, zerga zati bakoitzagatik likidatuko da, aurreko idatz-zatian adierazi den bezala.

Transakzioaren ondorioz ondasunak edo eskubide errealak, auzian agertutako titulua dela bide, haien jabe zenaren esku geratzen direnean, hark ez du zergarik ordainduko, baldin eta behar bezala frogatzen badu jabaria edo jabetza eskuratu zuenean ordaindu zuela.

2. Jabaria finkatzean, jabe soilak zerga hau ordainduko du, bere ondarean sartzen duen eskubidearen balioaren arabera.
3. Enfiteusi-zentsuak eta erreserba-zentsuak eratzen direnean, ondasunen langapenari dagokion likidazioa egingo da, haien balioaren arabera, kapitala kenduta. Hala ere, kontzeptu honen ziozko likidazioa ere egingo da.

17. artikulua. Bermedun maileguaren zerga-ordainketa.

1. Mailegu baten bermea izango den hipoteka, bahi edo antikresiaren fidantzak eta eskubideak eratzen direnean, maileguagatik soilik ordainduko da zerga, baldin eta bermea mailegua ematen den aldi berean eratzen bada, edo mailegua ematen denean bermea jarriko dela aurrez ikusita badago.
2. Kreditu-kontuak, zorren onarpena eta ordaindutako gordailuak mailegu pertsonalak balira bezala likidatuko dira, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuta, hala badagokio.
3. Aurreko paragrafoan maileguarekin parekatutako egintzei foru arau honen 58. artikuluko 15. paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaie, hala badagokio.

18. artikulua. Eskubide-eskualdaketekin parekatutako egintzak.

Bahi, hipoteka edo antikresiaren hartzekodunaren eskubideetan subrogatzea eskubide-eskualdaketatzat hartuko da, eta foru arau honen 13. artikuluko e) idatz-zatian ezarritako tasaren arabera ordainduko da zerga.

19. artikulua. Kredituen eta eskubideen eskualdaketa.

Kredituak edo eskubideak eskualdatuz gero, eta haiek erabilia ondasun jakinak eta zenbatetsi ahal direnak lortzen badira, ondasun eta eskubide horiei dagozkien kontzeptu eta tasen berberen arabera ordaindu beharko da zerga. Hala ere, eraikitzen ari diren higiezin kasuan, kreditua edo eskubidea eskualdatu den unean ondasunak zuen balio erreala izango da zerga-oinarria. Ezin da izan lagapenaren ondorioz ordaindutako kontraprestazioa baino txikiagoa.

20. artikulua. Ondasun higiezinaren eskualdaketa.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturik eta hartatik salbuetsita ez dauden enpresen ondasun higiezinaren eskualdaketa guztiak zerga horren arabera likidatuko dira, salbuespenik gabe, 41. artikuluan egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari buruz ezarritakoa gorabehera.

Goian xedatu dena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenari zerga horri buruzko arauekin bat etorriko uko egiten zaionean aplikatu ahal izango da.

2. Baldin eta, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, autolikidazioa Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean egiten bada, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak ez dira inolaz ere zerga horretan dituzten betebeharretatik salbuetsiko, eta, nolana ere, eskubidea izango dute kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean behar ez zela sartutako kopuruak itzul diezazkieten, halakorik izan baldin bada.
3. Era berean, baldin eta likidazioa kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean egin behar bada eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga behar ez dela jasanarazten bada, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak ez dira inolaz ere zerga horretan dituzten betebeharretatik salbuetsiko, eta, nolana ere, saltzaileak eskubidea izango du Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zioz behar ez zela sartutako kopuruak itzul dakizkion, halakorik izan baldin bada.

21. artikulua. Baloreen eskualdaketa.

Baloreen eskualdaketen tributazio-araubidea 2012ko abenduaren 4ko 6/2012 Foru Dekretu Arauemailearen artikulua bakarrean ezarritakoa izango da. Foru dekretu arauemaile horren bidez, baloreen eskualdaketen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zein Balio Erantsiaren gaineko Zergaren izango duten tratamendua ezartzen da.

22. artikulua. Saka-eskubidea eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea.

1. Euskal Zuzenbide Zibila aplikatuta, ahaide tronkalek, foru-deiak egin, eta Lur Luan dauden ondasun tronkalen besteren-tzeetan ondasunak lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabiltzen dutenean, peritu-tasazioaren bidez zehaztutakoa hartuko da eskuraketa-balioztat, halako tasaziorik egin bada.
2. Ondasun tronkalak besterendu baino lehen foru-deirik egin ez, eta, horren ondorioz, saka-eskubidea erabiltzeko, senide tronkaletako batek besterentzea deuseztatzeko akzioa egikaritzen badu, senide tronkalak ordaindu behar duen prezioa zehazteko peritu-tasazioa egingo dute berariaz izendatutako pertsonak, eta tasazio horren bidez ezarritakoa hartuko da eskualdaketa-balioztat, Euskal Zuzenbide Zibila aplikatuz.

Kasu horretan, ordaindutako zergaren itzulketa eskatzeko eskubidea izango du erosleak, Foru Arau honen 74. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, eratziki beharreko gutxieneko balioa zehazteko erregelamendu bidez ezarritako arau teknikoetan xedatutakoa aplikatu behar zaizkien ondasun tronkalen eskualdaketen, foru arau honen 60. artikuluan balioak egiaztatzeko arautzen den prozedura aplikatuko da.

23. artikulua. Akzesioaren printzipioa.

Eraikin bat dagoen lurren edo orubeen salerosketetan eta kostubidezko gainerako eskualdaketetan, ulertuko da lurzoria eta hegala biak batera salerosten edo eskualdatzen direla, salbu eta eskualdatzaileak hegala beretzat gordetzen badu edo eskuratzailerak eraikinaren jabaria beste tituluren baten bidez eskuratua duela frogatzen badu.

24. artikulua. Jabari-aintzatespenak.

Jabetzaren edo beste eskubide baten adierazpena edo aintzatespena, hura jaso duen pertsonaren mandatari edo kudeatzaile gisa jardunez, adierazpen edo aintzatespen hori dagokien ondasunen eskuraketa egiaztatzean, benetako eskualdaketatzat joko da, baldin eta ustez ahalaz edo aginduz egindakoaren tituluan edo frogagirian ez bada agerrarazi legez ezarritako eran halakoa dela eta inguruabar horiek gertatu direla. Nolanahi ere, mandatari edo kudeatzaile gisa jarduteko aukera beste frogabide batzuen bidez ere frogatu daiteke.

25. artikulua. Lagatzeko eskubidea duten enkanteak.

1. Besterentzea enkante judizialean gertatzen bada eta errematea adjudikatzen zaion eskaintzaileak kasuan kasuko enkantea araupetu duen arautegian ezarritako baldintzekin lagatzeko eskubidea baliatzen badu enkantean, eskualdaketa bakarrik likidatuko da lagapen-hartzailearen alde. Lagatzeko asmoaren adierazpena enkantea amaitu ondoren egiten bada, ez da aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa, eta bi eskualdaketa likidatuko dira: bata, errematearen adjudikaziodunari; bestea, lagapen-hartzaileari.
2. Besterentzea administrazio- edo notario-enkantean egiten bada, bi likidazio egingo dira beti: bata, errematearen adjudikaziodunari, eta bestea, lagapen-hartzaileari; salbuespena egingo da adjudikazioduna lagapen-hartzailearen abokatuaren denean eta errematea bezeroari lagatzen dionean; halakoetan, errematearen lagapen-hartzaileari eskualdaketa bakarrik likidatuko zaio.

26. artikulua. Trukatetak.

Ondasun edo eskubideen trukateetan, trukatzailerak bakoitzak eskuratzen duenaren balio erreala araberako tributatu du, aitortutako balioa handiagoa denean izan ezik, eta eskuratutako ondasun edo eskubideen izaerari (higigarria edo higiezina) dagokion karga-tasa aplikatuko da.

27. artikulua. Saltzeko hitzemateak.

Edozein izaerako ondasunak saltzeko hitzematea kostubidezkotzat joko da beti, eta foru arau honen 12. artikuluko 2. paragrafoko l) idatz-zatian ezarritako baldintzetan sortuko du zerga ordaindu beharra.

28. artikulua. Kreditu-kontuak.

1. Mailegu-eragiketa egiteko modua dela-eta zenbatekoa hasieran finkatzerik ez dagoenean, kreditu-kontuetan gertatzen den bezala, mailegu-hartzaileak erabilitako kapitalaren likidazioa kredituaren urteko likidazioa egitean igorriko da, edo lehenago eragiketa amaituz gero.
2. Kontuaren iraupena urtebete baino luzeagoa izanez gero, lehenengo ekitaldiaren osteko ekitaldietan kasuan kasuko ekitaldian erabilitako zenbatekorik handienaren eta aurreko ekitaldietako saldo zordun handienaren arteko diferentzia positiboa hartuko da oinarritzat, halakorik badago.

29. artikulua. Zorren ordainetan egindako adjudikazioak, zorrak bereganatzearen ordainetan egindako berariazko adjudikazioak eta zorrak ordaintzeko adjudikazioak.

1. Zorren ordainetan egindako adjudikazioei eta zorrak bereganatzearen ordainetan egindako berariazko adjudikazioei ez zaie aplikatuko zerga itzultzeko eskubidea, hain zuzen ere foru dekretu honen 9. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian aipatzen dena.
2. Foru dekretu honen 9. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoaren arabera, zorrak ordaintzeko adjudikazioetan zor horiek ordaintzeko adjudikaziodunak ordaindutako zerga itzuli ahal izateko, adjudikazioduna ezin da izan hartzekoduna.
3. Zergaren likidazioa egiteko ondasunak edo eskubideak ordaintzeko adjudikatu direla frogatzen duen agiria aurkeztean agiri sinesgarriaren bidez frogatzen bada adjudikaziodunak foru arau honetan ezarritako apearen barruan hartzekodunari besterenganatu edo behin betiko adjudikatu dizkiola eta eskualdaketa horiei dagokien zerga ordainduta dagoela, zorrak ordaintzeko adjudikazioagatik ez da zerga ordaindu beharko, eta halaxe agerraraziko da agirian, oin-ohar batean, eta bertan ordainketa-eguna ere azalduko da.
4. Ondasunak edo eskubideak besterenganatzen, lagatzen edo adjudikatzeko diru kopurua edozein dela ere, zorrak ordaindu behar dituenak zerga honen zioz lagatako edo besterenganatutako ondasun edo eskubideengatik adjudikazio kontzeptuan ordaindutako kopurua itzul dakion eskubidea izango du soilik.

30. artikulua. Kasu bereziak.

1. Foru arau honen 9. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, salerosketa eta harekin berdinetsitako edozein kontratu suntsiarazteko berariazko baldintza bat bete eta ondorioz jabaria eskuratzen bada, ez da egingo likidaziorik kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean, eta horretarako ez da beharko hori adierazten duen epai judizialik edo administrazio- ebazpenik.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaie desjabetzea bidezkotu duten xedeak bete ez eta ondorioz desjabetuari jabaria lehengoratzearen zioz gertatzen diren eskualdaketei ere.

II. TITULUA SOZietate-ERAGIKETAK

I. KAPITULUA ZERGA-EGITATEA

31. artikulua. Zergapeko eragiketak.

1. Honako hauek dira zergapeko eragiketak:
 1. Sozietateak eratzea, sozietateen kapitala gehitzea eta gutxitzea, eta sozietateak desegitea.
 2. Bazkideen ekarpenak, sozietatearen kapitala gehitzea eragiten ez badute.
 3. Sozietatearen benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzea, Europar Batasunaren kide den estatu batean egon ez badira.
2. Ez dira zergapekoak izango honako hauek:
 1. Berregituratzeko eragiketak.

2. Sozietateen benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate egoitza Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzea.
3. Sozietatearen eraketa eskritura edo estatutuak aldatzea, eta, bereziki, sozietatearen helburua aldatzea eta sozietatearen iraunaldia aldatzea edo luzatzea.
4. Akzioen jaulkipen primek eskusiboki eraturako erreserben kontura egiten diren kapital zabalkuntzak.
5. Ondoren zehaztuko diren aktiboen eta pasiboen eskualdaketak, nahiz eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 101. eta 111. artikuluetan aipatzen diren eragiketak izan ez, baldin eta haien emaitza ekonomikoak baliokideak badira:
 - a) Finantza-bitartekarien inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta informazio-obligazioei buruzko 1985eko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8.3.d) artikuluan aipatzen den bezalako babes-sistema instituzional bat eratzeko eta zabaltzeko egiten direnak.
 - b) Bankuen Berregituraketa Ordenatua egiteko Funtsak parte hartuta kreditu-entitateak berregituratzeko prozesuetan egiten direnak; prozesu horiek Bankuak berregituratzeari eta kreditu-entitateen baliabide propioak indartzeari buruzko 2009ko uztailaren 26ko 9/2009 Legegintzako Errege Dekretuko 7. artikuluan aipatzen dira.
 - c) Sozietateen gaineko Zergari buruzko hamalagarren xedapen gehigarriko 3 zenbakian aipatzen diren errentak

32. artikulua. Atzerriko sozietateak.

1. Sukurtsal edo establezimendu iraunkorren bidez beren trafikoaren eragiketa batzuk Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten dituzten erakundeek zerga ordaindu beharko dute, baldin eta sozietate-egoitza eta benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batean badute, eta ordaindu ere, Espainiar estatuko erakundeen kontzeptu eta baldintza berak aplikatuta ordaindu beharko dute, eragiketa horietan erabiltzen duten kapital-zatia oinarri hartuta.
2. Sozietatearen egoitza eta benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasuneko estatu batean (Espainia ez beste batean) duten erakundeak ez dira egongo zergapean sozietate eragiketen modalitatean, sukurtsal edo establezimendu iraunkorren bitartez haien trafikoaren eragiketak Bizkaiko lurraldean egiten dituztenean. Halaber, eragiketa horiei dagokienez, ez dira zergapean egongo erakundearen benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean duten eta sozietate-egoitza Espainia ez den Europar Batasuneko beste estatu batean duten erakundeak.

33. artikulua. Berregituratzeko eragiketak.

Sozietate-eragiketen gaineko karga kalkulatzeko, hauek izango dira berregituratzeko eragiketak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 101. artikuluko 1, 2, 3 eta 5. zenbakietan zehaztutako bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak eta balore-trukeak, bai eta foru arau horretako 101. artikuluan aipatutako diruzkoak ez diren ekarpenak ere.

34. artikulua. Sozietateekin parekatutako erakundeak.

1. Zerga honen ondorioetarako, honako hauek parekatuko dira sozietateekin:
 1. Sozietate izan ez eta irabazteko asmoak dituzten pertsona juridikoak.
 2. Partaidetzako kontuen kontratuak.
 3. Ontzien jabekidetzak.

4. Inter vivos egintzen bidez eraturiko ondasun-erkidegoak, baldin eta enpresa jarduerak egiten badituzte; nolahi ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoa beteko da.
 5. Mortis causa egintzen bidez eraturiko ondasun-erkidegoak, kausatzailearen negozioaren ustiapenak hiru urte baino gehiago egiten badu indibisio-araubidean.
2. Erakundearen araubide juridikoaren ezaugarri bereziek bide ematen dutenean, foru arau honen 31. artikuluko 1. paragrafoko 1. letran ageri diren guztiak parekatuko dira.

35. artikulua. Zergaduna.

Ondoren adierazten direnek zerga ordaindu behar dute, zergadun gisa eta edozein direlarik ere alderdiek horren aurka ezarritako xedapenak:

- a) Sozietate bat eratzen denean, kapitala gehitzen denean, benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza lekualdatzen denean eta bazkideek kapitala gehitzea eragiten ez duten ekarpenak egiten dituztenean, sozietateak.

Partaidetzako kontuen kontratua eratzen denean, bazkide kudeatzaileak.

- b) Sozietateak desegiten direnean eta sozietatearen kapitala gutxitzen denean, bazkideek, jabeak, erkideek edo partaideek, jasotako ondasun eta eskubideengatik.

Partaidetzako kontuen kontratua iraungitzen denean, negozioko partaideak.

36. artikulua. Erantzule subsidiarioak.

Sozietatearen kapitala gutxitzen denean eta sozietateak desegiten direnean zerga ordaindu behar diren erantzule subsidiario izango dira zergapeko egintza juridikoan parte hartu duten administratzaileak edo likidatzaileak, baldin eta ondasunak eman badituzte.

II. KAPITULUA ZERGA-OINARRIA

37. artikulua. Arau orokorrak.

1. Bazkideen erantzukizuna nolabait mugatzen duten sozietateen kapitala eratzean edo gehitzean, zerga-oinarria bat etorriko da kapitalaren hasierako zenbateko nominalarekin edo jaulkipen primak eranstean finkatutako zenbateko nominalarekin, primarik eskatzen bada.
2. Aurrekoak ez beste sozietate batzuek egindako eragiketen kasuan eta sozietatearen kapitala gehitzen ez duten bazkideen ekarpenen kasuan, zerga-oinarria ekarpenaren balio garbia izango da. Balio garbi hori honela kalkulatu da: ekarritako ondasunen eta eskubideen balio errealari kendu egingo zaizkio karga eta gastu kengarriak eta ekarpenaren ondorioz sozietatearen kargura geratzen diren zorren zenbatekoa.
3. Benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza aldatzen denean, zerga-oinarria bat etorriko da benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza aldatzen duen sozietateak aldatzea egiteko erabakia hartzen den egunean duen hartzeko likidoarekin. Horretarako, hartzeko likidoa zera izango da: benetako aktiboaren balioaren eta eska daitekeen pasiboaren balioaren arteko diferentzia.
4. Sozietate baten kapitala gutxitzen denean eta sozietatea desegiten denean, zerga-oinarria bazkideei emandako ondasun eta eskubideen balio errealak izango da, gastuak eta zorrak kendu gabe.

5. Partaidetzako kontuen kontratua eratzeagatik zerga ordaindu beharko da, oinarritzat hartuta hitzarmen baten arabera merkatariak beste merkatari batzuen emaitza on edo txarretan izango duen kapital-zatia.

38. artikulua. Karga-tasa.

Zerga-kuota likidazio-oinarriari %1eko karga-tasa aplikatuta lortuko da.

III. TITULUA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK

I. KAPITULUA PRINTZIPIO OROKORRAK

39. artikulua. Modalitateak.

1. Honako hauek daude zergapetuta, hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera:
 - a) Notario-agiriak.
 - b) Merkataritzako agiriak.
 - c) Administrazio-agiriak.
2. Zerga hau kuota aldakor edo finkoen bidez ordainduko da, eta, horretarako, zera hartu behar da kontuan: zerga formalizatzeko, egilestekeo edo bideratzeko ematen den agiria zergaren indarraldian zehar baliozta daitekeen kopuru edo gauzaren batengatik eman den ala ez.
3. Notario-agiriak paper tinbredunean emango dira beti, lege mailako arau berezietan salbuetsi ezean.

II. KAPITULUA NOTARIO-AGIRIAK

40. artikulua. Zerga-egitatea.

Zergapean egongo dira notario eskriturak, aktak eta lekukotzat, foru arau honen 43. eta 44. artikuluetan ezarritako eran.

41. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zuzeneko xedetzat baliozta daitekeen kopuru edo gauza bat duten eskrituren lehenengo kopietan, aitortutako balioa erabiliko da oinarri gisa, eta administrazioak egiaztatu egin ahal izango du.

Berme-eskubide errealetan eta bermedun maileguak dokumentatzen dituzten eskrituretan, zerga-oinarria foru arau honen 12. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

Hipotekak edo bestelako edozein berme-eskubide geroratzen denean eta haien maila hobetzen denean, zerga-oinarria maila okerragotzen zaion eskubideari esleitutako erantzukizun osoa izango da. Maila berdinketan, zerga-oinarria lehenik ezarritako berme-eskubideari dagokion erantzukizunaren zenbatekoak zehaztuko du.

Paragrafo honetan xedatutakoa betetzeko, eskritura publikoaren lehenengo kopiaztat joko da zerga hau likidatzeko dagokion zerga-administrazioan aurkezten den lehena.

2. Notario-aktetan aurreko paragrafoan xedaturikoa beteko da, protesto-aktetan salbu, horrelakoetan zerga-oinarria protestaturiko efektuaren balio nominalaren edo protestoa eragin duen kopuruaren herena izango baita.
3. Egintzaren xedea balioztatu ezin den gauza dela ulertuko da haren indarraldi osoan, baita iraungi denean ere, oinarriaren zenbatekoa ezin denean zehaztu. Zenbateko hori ezin bada egintza egitean finkatu, zerga gauza balioztaezina balitz bezala eskatuko da, eta zenbatekoa zehazten denean likidazioa osatu ahal izango da.

42. artikulua. Zergaduna.

Subjektu pasiboa ondasun edo eskubidearen eskuratzailerak izango da, eta, halakorik ezean, notario-agiria eskatzen dutenak edo agiriaren onura jasotzen dutenak.

Bermea eratuta duten mailegu-eskriretan, eskuratzailerak mailegu-hartzailea izango da.

Agiri batek foru arau honen 44. artikuluan xedatutakoa dela bide zergapean dauden egintza edo negozio juridiko batzuk hartzen dituenean, haietako bakoitzaren subjektu pasiboa zehaztuko da.

43. artikulua. Kuota finkoa.

Notarioen eskrituren eta akten jatorrizkoak eta kopiak, bai eta lekukotzak ere, folioko 0,15 euro balio duen paper tinbredunean emango dira beti. Kopia bakunak ez dira zergapean egongo.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa emaile beraren izenean ematen den bigarren kopiari eta ondoren ematen direnei aplikatuko zaie.

44. artikulua. Kuota graduala.

1. Notarioen eskrituren eta akten lehenengo kopiek %0,50eko karga-tasa ordainduko dute, egintza edo kontratu horiei dagokienez, honako baldintza hauek betetzen direnean:
 - a) Baliozta daitekeen kopuru edo gauza bat izatea xedetzat.
 - b) Jabetza erregistroetan, merkataritzakoetan, herri administrazioen menpeko kooperatiben erregistroetan eta ondasun higiezinaren erregistroetan inskribatu ahal diren egintzak edo kontratuak izatea.
 - c) Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari edo Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kostubidezko ondare eskualdaketei edo sozietate-eragiketei loturik ez egotea, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.
2. Protesto-akten kopiek artikuluko honetako 1. paragrafoan adierazitako karga-tasa ordainduko dute.
3. Artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian araututako betekizunari dagokienez, betekizuna betetzat joko da aipatutako erregistro publikoetan inskribatzeko aukera dagoenean, besterik gabe, zergapeko egintza edo negozio juridikoa inskribatzen den ala ez kontuan hartu gabe.

III. KAPITULUA Merkataritzako Agiriak

45. artikulua. Zergapeko merkataritzako agiriak.

1. Honako hauek daude zergapean: kanbio-letrak, igorpen funtzioa betetzen duten agiriak edo letrak ordeztzen dituztenak, gordailuen ordezkagiri edo ziurtagiri eskualdagarriak, eta 18 hilabete baino gutxiagorako seriean jaulkitzen diren ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko gainerako tituluak, inoren kapitalaren ordezkagarri direnak eta kontraprestazio gisa

jaulkipenagatik ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzuli beharrekoaren arteko diferentzia ordaindu beharra dakartenak.

2. Agiri batek igorpen funtzioa betetzen duela ulertuko da leku batetik bestera fondoak bidali direla edo zeinu baliokidea frogatzen duenean, edo ordainketa agindua dakarrenean, nahiz eta toki berean izan, edo bertan «agindura» klausula duenean.

46. artikulua. Zergaduna.

1. Igorleak ordaindu behar du zerga, kanbio-letra atzerrian ematen denean izan ezik, halakoetan Bizkaiko lehen edukitzaileak ordaindu behar baitu, baldin eta Espainiako lehen edukitzailea bada eta ohiko egoitza edo zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu.
2. Igorpen-agiriak edo kanbio-letren ordezkariak, gordailuen ordezkariak eta seriean jaulkitako ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko tituluak kargatzen dituen zergaren subjektu pasiboak izango dira haiek ematen dituzten pertsonak edo erakundeak; atzerrian ematen direnak salbuetsita daude, aurreko paragrafoan bezala. Endosatzeko diren txekeak endosatzaileak emandakotzat joko dira.
3. Igorpen funtzioa betetzen duten agirien xedea hornitzaileei ordaintzea edo bezeroei kobratzea denean, xede horiekin zirkulazioan jartzen dituen pertsonak edo erakundeak emandakotzat joko dira, agirian ageri dena gorabehera.

47. artikulua. Erantzule solidarioak.

Zerga ordaintzearen erantzule solidarioa izango da aurreko artikuluan aipatutako efektuen negoziazioan edo kobrantzan parte hartzen duen pertsona edo erakundea.

48. artikulua. Zerga-oinarria. Arau orokorrak.

1. Kanbio-letran, igorritako kopurua izango da oinarria, eta gordailuen ziurtagirietan, berriz, haien zenbateko izendatua.
2. Kanbio-letra mugaeguneratzeko epea jaulkipen egunetik sei hilabetekoa baino luzeagoa denean, zerga-oinarriaren bikoitzari dagokion zerga eskatuko da.

Egintza edo negozio juridiko bati dagokion kanbio-letraren ordezkari bi letra edo gehiago ematen badira eta ondorioz zerga gutxitzen bada, haien oinarriak gehitu beharko dira diferentzia eskatzeko. Zatiketa hori ez da egintzat joko efektuen mugaegunen artean hamabost egun baino gehiago daudenean edo agiri bidez itundu bada aldian aldiko igorpenen bidez kobratzea.

3. Halaber, aurrean finkatu diren arauak igorpen funtzioa betetzen duten agiriei edo kanbio-letrak ordeztzen dituztenei ere aplikatuko zaizkie, artikulua honetako 2. paragrafoko lehen errokadaren adierazitakoa izan ezik.
4. Inoren kapitalaren ordezkariak diren seriean jaulkitako ordainduko, bonu, obligazio eta antzeko gainerako tituluetan, kontraprestazio gisa jaulkipenagatik ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzuli beharrekoaren arteko diferentzia ordaindu beharra dakartenetan, oinarria jaulkitzaileak itzuli beharreko kapitalaren zenbatekoa izango da.

49. artikulua. Efektu tinbredunak eta eskudiruzko ordainketa.

1. Kanbio-letrak beren zenbatekoei dagokien efektu tinbreduna erabiliz eman behar dira nahitaez. Letra bat zenbateko txikiagoko efektu tinbreduna erabiliz ematen bada, letra horrek ez du izango legeek ematen dioten betearazpen-eraginkortasunik. Zerga-ordainketa honako eskala honen arabera egingo da:

Zerga-oinarria (€)	Eurotan
24,04 euro edo gutxiago	0,06
24,05 - 48,08	0,12
48,09 - 90,15	0,24
90,16 - 180,30	0,48
180,31 - 360,61	0,96
360,62 - 751,27	1,98
751,28 - 1.502,53	4,21
1.502,54 - 3.005,06	8,41
3.005,07 - 6.010,12	16,83
6.010,13 - 12.020,24	33,66
12.020,25 - 24.040,48	67,31
24.040,49 - 48.080,97	134,63
48.080,98 - 96.161,94	269,25
96.161,95 - 192.323,87	538,51

192.323,87 eurotik gorako kopuruetan, berriz, 0,018 euroko zerga ordainduko da 6,01 euro edo zatiki bakoitzeko, eta eskudirutan likidatuko da beti. Likidazioa ez bada foru arau honen 67. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako epean aurkezten, letrek galdu egingo dute legeek ematen dieten betearazpen-indarra.

2. Igorpen funtzioa betetzen duten agiriei edo kanbio-letren ordean erabiltzen direnek eskudirutan ordainduko dute zerga, goiko zergapetze eskalaren arabera. Horretarako, halako ordainketetarako prestatutako ereduak erabiliko da, eta foru arau honen 67. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako epean aurkeztu beharko da. Epe horren barruan aurkezten ez badira, agiriok galdu egingo dute legeek ematen dieten betearazpen-indarra.
3. Atzerrian emandako kanbio-letra batek Espainiako estatuko lurraldean ondorio juridikoa edo ekonomikoa sortzen badu, letra hori eskudirutan itzuliko du Bizkaiko Lurralde Historikoko lehenbiziko hartzaileak, baldin eta aldin berean Espainiako estatuko lehenbiziko hartzailea ere bada.
4. Foru Aldundiak, merkataritzako trafikoaren ezaugarrien edo agirien mekanizazio-prozesuaren arabera komenigarria dela uste izanez gero, merkataritzako agiria bera nahiz agiri horri dagokion eskudiruzko ordainketa ezin hobeto identifikatzeko neurri egokiak hartzeko betebeharra ezar dezake.
5. Seriean eta gehienez ere hamazortzi hilabeteko eperako jaulki diren bonu, ordainduko, obligazio eta gainerako antzeko tituluetan (inoren kapitalaren ordezkagarri direnetan) kontraprestazioa ordaintzen bada, hain zuzen ere, jaulkipenean ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzultzeko konprometitutakoaren arteko diferentzia, orduan, 0,018 euroko zerga ordainduko da 6,01 euro edo zatiki bakoitzeko, eta zerga hori eskudirutan likidatuko da.

50. artikulua. Efektu tinbredunak egitea eta trukitzea.

Efektu tinbredunei dagozkien honako alderdi hauek Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez arautuko dira:

- a) Efektuen itxura, estanzapazioa, mota, ezaugarriak eta zenbakiak.

- b) Tinbratze zuzena lortzeko kasuak eta prozedura.
- c) Efektu horiek trukatzeko baldintzak.
- d) Efektuak baliogabetzeko era.

51. artikulua. Zerga ordaintzearen ondorioak.

Merkataritzako agiriak ematen direnean zerga ordaintzeak agiriotan jasotako klausula guztiak biltzen ditu, kontzeptu honen ondoriozko zerga-ordainketari dagokionez.

IV. KAPITULUA ADMINISTRAZIO-AGIRIAK

52. artikulua. Zergapeko administrazio-agiriak.

Erregistro publikoetan egiten diren aurreneurritzko idatzoharrek zerga ordaindu beharko dute, xedetzat baliozta daitekeen eskubide edo interes bat dutenean, ofizioz ordenaturik ez badaude eta epai-agintaritzaren esku-hartzerik gabe egiten badira.

53. artikulua. Zergaduna.

Aurreneurritzko idatzoharra eskatzen duen pertsonak zergadun gisa ordaindu beharko du.

54. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Aurreneurritzko idatzoharren bidez bermatzen, argitaratzen edo eratzen den eskubide edo interesaren balioa izango da oinarria.
2. Enbargo-idatzoharren zerga-oinarria inolaz ere ez da izango enbargatutako ondasunen balio erreala baino handiagoa, ez eta enbargo-idatzoharra eragin duen kopuru osoa baino handiagoa ere.

Baldin eta enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra jabetza erregistro batean baino gehiagotan egin behar bada eta horregatik hainbat likidazio egiten badira, horien guztien zerga-oinarrien batura ezin da izan aurreko paragrafoan ezarritako muga baino handiagoa.

55. artikulua. Zerga-kuota.

Erregistro publikoetan egiten diren aurreneurritzko idatzoharrek %0,50eko karga-tasa ordainduko dute, eta eskudirutan likidatuko dira.

IV. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA ZERGA-ONURAK

56. artikulua. Onura orokorrak.

1. Foru arau honen 1. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren zergapetzeko hiru modalitateei kasuaren arabera ezarri ahal zaizkien zerga-onurak honako hauek dira:
 - a) Foru arau honen 57. artikuluan agertzen diren salbuespen subjektiboak.
 - b) Foru arau honen 58. artikuluan arautzen diren salbuespen objektiboak
 - c) Zergari buruzko foru arauaren 59. artikuluan aipatzen diren beste arau batzuk ezarritako gainerako zerga-arauak.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zerga-onurak ez zaizkie inolaz ere aplikatuko kanbio-letrei, ez haien ordeztar agiriari, ez igorpen funtzioa betetzen duten agiriari ez eta foru arau honen 43. artikuluan xedatutakoa dela bide zergapetutako notarioen eskritura, akta eta lekukotzei.

57. artikulua. Salbuespen subjektiboak.

Honako hauek dira Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan salbuespen subjektiboa izango duten erakundeak:

1. Estatuak, Gizarte Segurantzak eta lurralde nahiz erakunde mailako herri administrazioak, eta haien ongintzako, kulturako, irakaskuntzako eta zientzien arloko establezimenduak.
2. Irabazteko asmorik gabeko erakundeak, irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriak arautzen dituen arautegiaren arabera.

Aurreko paragrafoko erakundeek salbuespenerako eskubidea dutela egiaztatzeko, zergaren autolikidazioarekin batera, zerga-egitatea egiten denean indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak aplikatzeko araudian araututakoaren arabera.

3. Aurrezki-kutxak eta banku-fundazioak, gizarte-ekintzetarako egiten dituzten eskuraketengatik.
4. Eliza Katolikoak eta Espainiako estatuarekin lankidetzak akordioak sinatuta dituzten elizak, konfesioak eta erlijio-elkarteak.
5. Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta horren barruko errege akademiak, bai eta autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten erakundeak ere.
6. Espainiako Gurutze Gorria eta Espainiako Itsuen Erakundea.
7. Edozein parlamentutan ordezkariak dituzten alderdi politikoak.

58. artikulua. Salbuespen objektiboak.

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita daude honako eragiketa hauek:

1. Barne antolamenduaren zati izatera pasatu diren nazioarteko itun edo hitzarmenen bidez emandako salbuespena duten eskualdaketak eta gainerako egintza eta kontratuak.
2. Legezko atzera-eskuratzearen bidez egiaztatzen diren eskualdaketak, hura jasaten duen eskuratzailerak zerga lehendik ordaindua badu. Ez daude salbuespen honen eremuan sartuta Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 86. artikuluan araututako foru saka-eskubidea baliatzearen ondoriozko eskualdaketak. Kasu horretan, foru arau honen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dute zerga.
3. Ezkontideek ezkon-sozietateari egindako ondasun eta eskubideen ekarpenak, ezkon-sozietatea desegin ondoren ekarpenen ordainetan ezkontideen alde egindako adjudikazioak, eta horregatik ezkontideei egiten zaizkien eskualdaketak.

Salbuespen hori aitortutako adjudikazio-gaindikinek ere izango dute, baldin eta ezkontza desegitearen edo haren ekonomi araubidea aldatzearen ondare-ondorioa diren ondasunen adjudikazioetatik ateratzen badira eta ezkon-sozietatearen ondasunak ezkontideetako bati adjudikatzearen ezinbesteko ondorio badira.

Gauza bera aplikatuko da aurreko paragrafoetan aipatutako kasuetan, Izatezko Bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorri osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei dagokienez.

4. Ondasunen prezioa osatzen duten diru-emateak edo, baita ere, zerbitzu pertsonalak, kredituak edo kalte-ordainak ordaintzeko egiten direnak.

Era berean, salbuetsita egongo dira kreditu eta aurrezki erakundeek hipoteka-maileguen eskriturak betearazteko egindako diru-emateen aktak, zerga behar bezala likidatu bada edo salbuespena adierazi bada.

5. Estatuak eta lurralde nahiz erakunde mailako herri administrazioek ematen dituzten interesik gabeko aurrerakinak. Herri administrazioetat joko dira foru arau honen 57. artikuluko 1. paragrafoan aipatu direnak.
6. Lur-zatien baterakuntzak eragiten dituen eskualdaketak eta gainerako egintza eta kontratuak, landa-lurreko finen derrigorrezko trukaketenak, behar bezala baimendutako borondatezko trukaketak eta berrogei urtetik gorako errentamenduetan lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatzearen ondorio direnak (Euskal Zuzenbide Zibilean daude araututa), baldin eta onibarra eskuratu eta hurrengo sei urtean eskualdatzen ez bada.
7. Lurren eskualdaketak, baldin eta eskualdaketa horiek egikaritze-unitatearen jabeek ituntze batzarrei eginiko ekarpenen ondorioz eta batzarrek berek, jaso dituzten lurren proportzioan, jabe horiei egiten dizkieten esleipenen ondorioz gertatzen badira.

Birpartzelazioak eragiten dituen egintzak eta kontratuak berak, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan.

Aurreko kasuetatik edozeinetan, baldin eta jabe bati esleitu zaizkion lurzoruen balioak jabeak berak jarritako lurzoruei proportzioan dagokien balioa gainditzen badu, gaindikinari dagozkion likidazioak igorriko dira.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, hirigintzako legeriak ezarritako betekizun guztiak bete behar dira.

8. Tutoreek beren karguen jardunaren bermetzat ematen dituzten bermeei dagozkien egintzak.
9. Hipoteka merkatua arautzen duen legeria berezian ezarritako betekizunak betetzen dituzten hipoteka bonu eta zedulak.
10. Foru arau honen 31. artikuluko 2. paragrafoko 1., 2., 3. eta 5. zenbakietan eta 32. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako sozietate-eragiketarak, kostubidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateen ondoriozko zergapetzeari dagokionez.
11. Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako zein onartu gabeko baloreen eskualdaketak, salbu foru arau honen 21. artikuluan ezarritakoa.

Zerga ordaintzeko araubide bera aplikatuko zaio erantzukizun mugatuko sozietateen sozietate-partaidetzen eskualdaketari.

12.

- a) Lurrak eta orubeak eskualdatzea eta azalera-eskubidea eratzea edo lagatzea, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak eraikitze, bai ondare eskualdaketen gaineko kargari dagokionez, bai egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari dagokionez. Haiek eskuratzeko eskatutako maileguak —hipoteka-maileguak izan zein ez—, egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari dagokionez.

- b) Egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari dagokionez, batetik, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak eraikitzeke eraturako maileguak —hipoteka-maileguak izan zein ez—, eta, bestetik, haiek eraikitzeari lotutako egintzak edo kontratuak formalizatzeko egiletsitako eskritura publikoak.

Aurreko a) letran aipatzen diren lurak edo orubeak eskualdatu eta azalera-eskubidea eratu edo laga aurreko egintzak ez dira salbuetsita egongo.

- c) Babes publikoko etxebizitzaren lehenengo eskualdaketa formalizatzeko egiletsitako eskritura publikoak, behin betiko kalifikazioa lortu ondoren, egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari dagokionez.
- d) Babes publikoko etxebizitzaren gaineko jabariaren lehenengo inter vivos eskualdaketa, baldin eta haien behin betiko kalifikazioa lortzen den egunetik aurrerako sei urteen barruan egiten bada.

Aurreko a) eta b) letretan jasotzen diren salbuespenak aitortu ahal izateko, kontratu-agirian bertan adierazi behar da kontratua babes publikoko etxebizitzak eraikitzeke xedeaz egilesten dela. Hala ere, aitorten hori ondoriorik gabe geratuko da kasu hauetan: baldin eta salbuespena aitortu zenetik hiru urte igarotzen badira behinbehineko kalifikazioa lortu gabe —lau urte, lurren edo lurak eskuratzeko maileguen kasuan—; edo baldin eta eraikuntza-proiektua ezin bada burutu, edozein unetan eta edozein arrazoi dela-eta. Salbuespena behin-behingoaz emandakotzat joko da; behin betikoa izateko, indarrean dauden xedapenek horrelako etxebizitzetarako eskatzen dituzten betekizunak bete beharko dira.

Salbuespenaren behin-behineko aitortpena eragin zuten baldintzak betetzen ez badira, edo hura ondoriorik gabe geratzen bada, foru arau honetako 67.3 artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

Babes publikoko etxebizitzaren kontzeptuan bakarrik sartzen dira etxebizitzak eta haiei lotutako eranskinak..

13. Eskualdaketa eta gainerako egintzak eta kontratuak, haien xede bakarra zerga ordaintzea ekarri zuten aurreko egintza batzuen eraginkortasunik eza gainditzea baldin bada, eta egintza horiek beren ez egotea edo deuseztasuna eragiten duen akatsen bat badute.
14. Sozietateak eratzea, kapitala gehitzea, Bazkideen ekarpenak, sozietatearen kapitala gehitzea eragiten ez badute, eta Sozietatearen benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietate-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzea, Europar Batasunaren kide den estatu batean egon ez badira.
15. Eskudiruzko gordailuak eta maileguak, haiek gauzatzeko modua kontuan hartu gabe, eta are ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko tituluak ere. Zergarekiko salbuespenak gordailua edo mailegua dokumentatzen duten tituluen ondorengo eskualdaketa ere hartuko du, baita 18 hilabete baino gutxiagorako seriean jaulkitzen diren ordainduko, bonu, obligazio eta antzeko tituluen gainean ezarri behar den egintza juridiko dokumentatuen gaineko karga ere, titulu horiek inoren kapitalaren ordezkagarri direnean eta kontraprestazio gisa jaulkipenean ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzultzeko konprometitutakoaren arteko diferentzia ordaintzea dakartenean, industria edo negozioetako bankuek jaulkitako kutzako bonuen bidezko maileguak barne.
16. Baserriaren eta bere jabegoaren jabari osoa edo bizi arteko gozamina senide tronkalei kostu bidez eskualdatzea, baldin eta finka hori nekazaritzako, basozaintzako edo abeltzaintzako ustiapenerako erabiltzen bada eta eskualdatzaileak berak ustiatzen badu.

Salbuespena aplikatu ahal izateko, eskuratzzaileak berak egin behar ditu, benetan eta zuzenean, goian aipatutako jarduerak, finka eskuratu eta hurrengo sei urteetan.

Pertsona bat batez ere nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustiapenean ari dela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako ekonomi jardueren edo lanaren etekin gehienak ustiatetik eskuratzen dituenen.

17. Foru Aldundiak onetsitako Bizkaiko Nekazaritzako Laguntzen Plana erabiltzearen ondorioz egiten diren egintzak eta kontratuak.
18. Babes publikoko etxebizitzaren eskualdaketak, herri administrazioek beren eskumenak erabiliz egiten dituztenak.

Salbuespen hori honako kasu honetan ere aplikatuko da: babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko eta esleitzeko prozedurei dagokienez indarrean dagoen araudiaren babesean, partikularren artean babes publikoko etxebizitza bat eskualdatzen bada, eta etxebizitzaren eskuratzaila herri administrazio batek izendatu badu.

Babes publikoko etxebizitzaren kontzeptuan, etxebizitzak eta haiei lotutako eranskinak baizik ez dira sartzen.

19. Zuzenean zein beste erakunde baten bidez konfiskatutako ondarea itzultzeko egintzak formalizatzeko egilesten diren eskritura publikoak. Ondarea beste erakunde baten bidez konfiskatu bada, haren titularrak den pertsona fisiko edo juridikoaren eta beste erakunde horren arteko harremana frogatu beharko da.
20. Sozietateen gaineko Zergari Foru Arauko 18. artikulua aipatzen dituen finantza-errentamenduko eragiketak egin ohi dituzten enpresen alde egiten diren eraikuntzen eskualdaketak, eskualdatutako horiek, ondoren, eskualdatzailea ez den beste pertsona bati errentamenduan emateko, erosteko aukerarekin; betiere eragiketa horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergan salbuetsita daudenean.

Onura hori izan ahal izateko, nahitaezko betekizuna da eskualdatzailearen eta eskuratzaila edo errentariaren artean zuzeneko edo zeharkako lotura-harremanik ez egotea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

21. Errepidetik ibiltzeko motore mekanikoa duten ibilgailu erabilien eskualdaketak, eskuratzaila halakoak salerosi ohi dituen enpresari bat bada eta berriz saltzeko eskuratzen baditu.

Salbuespena behin-behinean emango da; behin betikoa izan dadin, erositako ibilgailua eskuratu eta hurrengo urtearen barruan saldu dela frogatu behar da.

22. Subrogazio eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa, Hipoteka-maileguak subrogatu eta aldarazteari buruzko martxoaren 30eko 2/1994 Legean ezarritako eran eta lege horretan xedatutako betekizun eta baldintzetan egiten denean.
23. Hartzekodunak eta zordunak ados etorrita itundutako hipoteka-maileguak edo -kredituak berritzeko eskritura publikoen lehenengo kopiak. Horretarako, baldintza bi bete behar dira: batetik, hartzekodunak Hipoteka-maileguak subrogatu eta aldarazteari buruzko 1994ko martxoaren 30eko 2/1994 Legeko 1. artikuluan aipatutako erakundeetako bat izan behar du. Bestetik, aldaketak hauetako egoera baten edo gehiagoren ingurukoa izan behar du: hasieran itundutako edo indarrean dagoen interes-tasaren baldintzak, epea, amortizazio-metodoa edo -sistema eta maileguaren beste edozein finantza-baldintza.
24. Errepide, autobia edo autopistak edo haien zerbitzuguneak ustiatzea xedetzat duten administrazio emakidak, baldin eta emakidaduna den sozietatearen kapitaleko zatirik handiena Bizkaiko Foru Aldundiarena bada.
25. Espainiako Bankuko Erregistro Berezian inskribatuta dauden elkarren bermerako sozietateen kapitala eratzea, gehitzea edo urritzea, eta haiek formalizatzeko egintza eta agiriak.

Salbuespen bera aplikatuko zaio Espainiako Bankuko Erregistro Berezian inskribatuta dagoen elkarren bermerako sozietatearen eta bermearen onura jaso duen bazkidearen arteko harreman juridikoari, baita harreman hori formalizatzeko agiriari ere.

Era berean, salbuetsita dago Espainiako Bankuko Erregistro Berezian inskribatuta dagoen elkarren bermerako sozietatearen onurarako edozein berme edo antzeko negozio juridikoak ematea, aurreko lerrokadan aipatutako harreman juridikoari dagokionez, baita hura formalizatzeko agiria ere.

Aurreko bi lerroketan aipatutako albuespenen barruan dago kasu horietarako aurrez ikusitako bermeen ezetapena.

26. Birfinkapen sozietateek aurreko paragrafoan elkarren bermerako sozietateentzat ezarritako zerga-onurak izango dituzte, martxoaren 11ko 1/1994 Legearen 11. artikulua arabera sozietatearen xedetzat nahitaez izan behar dituzten jardueri dagokienez.
27. Ondareko ondasunak eta eskubideak bihurtzea eta haien konpentsazioz dirua ematea, 1936-1939 aldiko erantzukizun politikoei buruzko arauak aplikatuz, Alderdi Politikoei Bahitutako Ondasunak eta Eskubideak Bihurtzeari edo Kompentsatzeari buruzko abenduaren 15eko 43/1998 Legean xedatutakoaren arabera.
28. Mailegu edo kreditu bat ordaintzeko bermetzat eraturako hipoteka-eskubide errealean eraketa edo kitapena jasotzen duten eskritura publikoen lehenengo kopiak, betiere mailegu hori ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzen bada.

Etxebizitzaren barruan, eraikin berean dauden garaje-plazak (gehienez bi) eta eranskinak sartzen dira, denak batera eskualdatzen badira. Salbuespenak ezartzeko, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitzaren eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Ohiko etxebizitzat eta birgaitzetat joko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan hala definitzen direnak.

Zergapekoa pertsona fisikoa denean eta etxebizitza gisa gaitutako lokal bat erosteko mailegu edo kreditu bat ordaintzeko berme gisa eraturako hipotekak direnean, zeinaren eskualdatzeari foru arau honen 13. artikulua c) letraren azken paragrafoan aipatzen den itzulketara aplikatu behar baita, Zerga Administrazioak, eskaera egin ondoren, hipoteka horren eraketa edo ezereztea dokumentatzen duten notario- eskrituren lehen kopiei dagokien zerga itzuliko du, betiere etxebizitzak aurreko paragrafoan aipatutako ohiko etxebizitzaren kontzeptua betetzen badu. Itzulketak ez du sortuko berandutze korriturik.

29. Alderantziko hipoteken eraketa, subrogazioa, berritzea eta ezereztea jasotzen duten eskritura publikoen lehenengo kopiak, eskriturak abenduaren 7ko 41/2007 Legean aurrez ikusitakoaren arabera egin badira. Lege horrek Hipoteken merkaturaren erregulazioaren duen martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta sistema hipotekario eta finantzarioari buruzko beste arau batzuk aldatu, alderantziko hipotekak eta mendekotasun aseguruak arautu eta zerga alorreko zenbait arau ezartzen ditu.
30. Seme-alaben aldeko mantenu pentsioen erreklamazioen ondoriozko enbargoen aurreneurritzko idatzoharrak.
31. Inbertsioko Kolektiboko Erakundeei buruzko Legean araututako higiezinak inbertsioko kolektiboko erakundeak inbertsioko kolektiboko erakunde ez-finantzario moduan aritzen badira eta haien helburu sozial bakarra mota guztietako hiri-ondasunak higiezinak eskuratzea eta sustatzea bada (lurrak erostea barne), gero errentan emateko, halako erakundeek %95eko hobaria izango dute zerga honen kuantan, errentamendurako etxebizitzak nahiz errentamendurako etxebizitzak sustatzeko lurrak eskuratzeagatik. Horretarako, bi kasutan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 78. artikuluko 2. zenbakiko b) eta c) letretan higiezinak mantentzeari buruz ezarritako betekizun bereziak bete behar dituzte, honako kasu honetan izan ezik: Balore Merkaturako Batzorde Nazionalak, albuespen modura, beren-beregi horretarako baimena ematen badu.

Hipoteka-titulazioko funtsak, finantza-aktiboen titulazioko funtsak eta arrisku-kapitaleko funtsak salbuetsita daude sozietateeragiketen modalitatean zergapetutako eragiketa guztietan.

32. Errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateen zerga-araubidean dauden sozietateek eskuratutako etxebizitzak eskualdatzea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 115.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, baldin eta gero haiek errentatuta lortzen diren errentei araubide horretan ezarritako hobaria aplikatu ahal bazaie.
33. Etxebizitzen errentamenduak eratzea, abenduaren 27ko 43/2012 Dekretuan araututako «Merkatu Libreko Etxebizitzen Alokairurako Bitartekaritza Programa»ra (ASAP), abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuan araututako «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programara edo aldundiek nahiz udalek dituzten etxebizitza- plan eta -programetara bilduta.

Salbuetsita egongo dira, era berean, errentak zerga-oinarrian ez sartzeko araubidea duten errentamenduak (araubide hori aurreikusita dago higiezin errentamenduko jarduera kualifikatua duten erakundeentzat Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako araubide berezian), baldin eta xedetzat badute sozietateak etxebizitza-errentamenduko eragiketak egitea. Ondorio horietarako, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan definitutako errentamendua baino ez da joko etxebizitzen errentamendutzat.

34. Desgaitasunen bat duten pertsonen ondare babestuei eginiko ekarpenak. Ondare horiek Pertsona ezinduen ondarea babesteko eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Araudia helburu bererako aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak arautzen ditu.
35. Etxebizitzen lehenengo eskualdaketak dokumentatzeko egiten diren notario-eskrituren lehenengo kopiak salbuetsita daude foru arau honetako 44. artikuluan aipatutako notario-agirien gaineko kargatik.

Paragrafo honetan ezarritakoa betetzeko, etxebizitzaren barruan sartzeko garaje plazak (gehenez bi) eta haien eranskinak, eraikin berean badaude eta denak batera eskualdatzen badira. Salbuespenak ezartzeko, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

36. Higiezin Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuei buruzko urriaren 26ko 11/2009 Legean araututako higiezin merkatuan inbertitzeko sozietateek zerga honen kuotaren %95eko hobaria izango dute, errentamendurako diren etxebizitzen eskuraketetan eta errentamendurako etxebizitzak egiteko lurren erosketetan. Horretarako, bi kasuotan, Lege horren 3. artikuluko 3. idaz-zatian higiezinak mantentzeko ezarri diren betekizun bereziak bete beharko dira.
37. Maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen 8. artikuluko 3. paragrafoko d) idatz-zatian xedatutako baldintzekin, babes-sistema instituzional bat eratzen duten kreditu erakundeak sozietateak eratzea formalizatzeko eta elkartutako erakundeek harpidetutako edo egindako sozietatearen kapitalaren gehikuntzak eta ekarpenak formalizatzeko behar diren egintzak eta dokumentuak. Hala ere, horretarako, nahitaez egon behar du jasota babes-sistema instituzionala sartzeko kontratu-akordioan eta, hala behar denean, integratzeko planean.

Halaber, Ondare Eskualdaketen eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita daude babes-sistema instituzionala osatzen duten erakundeek kaudimen, likidezia eta emaitzak bateratzeko elkarrekiko konpromisoak (maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. paragrafoko d) idatz-zatiko aipatzen direnak) ezartzeko egiten dituzten kontratu-akordioak, bai eta haiek formalizatzeko egiten diren agiriak ere.

38. Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautzen duen abenduaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren babesean, foru egoitzetan sartzearen ondoriozko zorra aitortzeko mailegua edo kreditua ordaintzeko bermetzat eratutako hipoteka-eskubide errealean ezereztea dokumentatzen duten eskritura publikoen lehenengo kopiak.

39. Hipoteka-mailegu eta-kredituen kontratu-berritzeen formalizazio-eskriturak salbuetsita geratuko dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien kuota mailakatutik, baldin eta berritze horiek formalizatzen badira martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuak —baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko presako neurri buruzkoa— eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak —COVID-19ren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurri buruzkoa— ezarritakoaren babesean.
40. 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legean ezarritako birfinantzatze-akordioetan edo gastuak ordaintzeko epaiketarik kanpoko akordioetan jasotako mailegu, kreditu edo beste betebeharrak batzuen kitak edo gutxitzeak dituzten eskriturak, betiere subjektu pasiboa zorduna bada.
41. Luzamenduak formalizatzeko eskriturak, hala martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 13.3. artikuluan aurreikusitakoak (COVID-19aren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurri buruzkoa) nola martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24.2. artikuluan aurreikusitakoak (haren bidez, presazko neurri osagarriak hartzen dira esparru sozial eta ekonomikoan, COVID-19ari aurre egiteko), eta COVID-19aren ondorioz sortutako osasun-krisia dela eta sinatu diren sektoreko esparru-akordioaren babesean emandako ohiko luzamenduak (maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Dekretu Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoak).
42. Ekonomiaren berrindartzea eta enplegua sustatzeko presazko neurri buruzko 2020ko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulutik 9. Artikulura araututako turismoaren sektorerako hipoteka-luzamendua aplikatuz hipoteka-mailegu eta -kredituen luzamenduak eta hipoteka-bermerik gabeko errentamenduen, maileguen, leasing eta renting kontratuen luzamenduak formalizatzeko eskriturak eta COVID-19aren eraginari aurre egiteko, garraioen eta etxebizitzaren arloetan ekonomia suspertzeko neurriak ezartzen dituen 2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23.era araututako salgaien garraio publikoaren eta bidaiariak autobusez garraiatzeko garraio bereziaren sektorerako luzamendua formalizatzeko eskriturak.
43. Inskribatzeko moduko berme erreala dagoenean, COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresa-kaudimenari laguntzeko ezohiko neurri buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako abal publikoa jaso duten finantzaketa-eragiketen epeen luzapena formalizatzeko eskriturak zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-dokumentuen kuota mailakatutik salbuetsita geratuko dira.

59. artikulua. Beste zerga-onura batzuk.

Foru dekretu honen 57. eta 58. artikuluetan aipaturiko salbuespenez gainera, ondoko zerga-onurak ere aplikatuko dira, bakoitzari dagozkion inguruabarretan eta kasu bakoitzean eskatutako baldintzak eta betekizunak betez gero:

1. Egoitza Santua, Gotzainen Konferentzia, elizbarrutiak, parrokiak eta gainerako lurralde barrutiak, erlijio ordenak eta kongregazioak, eta biziera sagaratutako erakundeak eta haien probintziak eta etxeak guztiz salbuetsita daude Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik, baldin eta eskuratzen dituzten ondasunak edo eskubideak kulturako, apaizen mantenerako, apostolutzarako eta karitaterako erabiltzen badira, Espainiako estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an sinatutako Gai Ekonomikoei buruzko Akordioan ezarritakoaren arabera.
2. Ekainaren 30eko 6/1988 Foru Arauan aipatutako borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak zergatik salbuetsita daude sozietate-eragiketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateetan, foru arau honen 31. eta 44. artikuluetan aipatutako notario-agiriei dagokienez.

Halaber, Pentsio Planak eta Fondoak arautzeko Legearen testu bateratua onartu zuen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak araututako pentsio fondoan eraketa, desegitea eta haiek gehitzeko eta gutxitzeko aldaketak ere salbuetsita daude.

3. Interes ekonomikoko elkartzeek, interes ekonomikoko Europako elkartzeek eta aldi baterako enpresa-ekarteek honako araudi honetan araututako zerga-onurak izango dituzte: Interes Ekonomikoko Elkartzeen zerga-araubideari buruzko maiatzaren 7ko 2/1992 Foru Arauaren 3. artikuluan, bigarren xedapen gehigarriko 3. paragrafoan eta xedapen iragankorrear.
4. 2015eko urriaren 14ko 44/2015 Legearen arabera lan-sozietate gisa kalifikatutako sozietateek %99ko hobaria izango dute zerga honetan dohaineko ondare-eskualdaketak direla-eta sortzen diren kuotetan, baldin eta Zuzenbidean onartzen den edozein bide erabiliz eskuratzen badituzte lan-sozietateko bazkide-langile gehienen sorburu den enpresaren ondasunak eta eskubideak.

Sozietate bati lan-sozietate kalifikazioa kentzen bazaio, aurreko paragrafoan aipatutako legean ezarritakoaren arabera, sozietate horrek galdu egingo ditu lan-sozietate izateagatik izandako tributu-onurak, deskalifikatzeko arrazoia gertatzen denetik galdu ere, eta erabilitako onurak zein haiei dagozkien berandutza-interesak itzuli beharko ditu.

5. Erlijio Ebangelikoaren Erakundeen Federakuntzan (FEREDE) sartutako elizek, Erkidego Israeldarren Federakuntzako (FCI) erlkarrekin, Espainiako Batzorde Islamikoak eta haietako kide diren elkarrekin erlijioarekin edo laguntzarekin lotuta egiten dituzten jardueretarako ondasunak edo eskubideak eskuratzea zergatik salbuetsita dago aplikatu beharreko modalitate guztietan.

Aurreko paragrafoko erakundeek salbuespenerako eskubidea dutela egiaztatzen, zergaren autolikidazioarekin batera, zerga-egitatea egiten denean indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak aplikatzeko araudian araututakoaren arabera.

6. Nekazaritzako zenbait ustategiren zerga-araubideari buruzko urtarrilaren 22ko 1/1997 Foru Arauak zerga honetarako ezarritako zerga-onurak ere aplikatu beharko dira.
7. Kooperatiba-sozietateek eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateek Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben zerga-araubideari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauan aitortutako zerga-onurak izango dituzte zerga honetan.
8. 2012ko abenduaren 4ko 7/2012 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikuluan aitortutako zerga-onurak. Foru dekretu arauemaile horren bidez, zergen arloko araudia egokitzen da bai finantza-sektoreko aktibo higiezin saneamendu eta salmentari dagokionez, bai eta kreditu-erakundeak berregituratu eta desegiteari dagokionez ere.

II. KAPITULUA BALIOEN EGIAZTAPENA

60. artikulua. Balioen egiaztapena.

1. Administrazioak esku izango du eskualdatutako ondasunen eta eskubideen, sozietate eragiketaren edo egintza juridiko dokumentatuaren balio erreala egiaztatzen.
2. Egiaztapen hori egiteko, Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako baliabideak erabiliko dira.

Gainera, zerga honen kostubidezko eskualdaketen modalitatean zergapetutako zerga-egitateen kasuan, aurreko paragrafoan aipatutako balio-egiaztapenerako gutxienezko balio eratzikigarria zehazteko ezarritako arau teknikoak ere erabili ahal izango dira, baldin eta kasuan kasuko ondasunei aplikatu ahal bazaizkie.

Ondasunen merkatuko batez besteko prezioa zerga-administrazioak aldizka onesten dituen taula ofizialetan ezartzen bada, taula horiek erabil daitezke balioa egiaztatzen.

3. Goiko 1. paragrafoan xedatutakoa gora-behera, interesdunek eskualdatutako ondasunen balio errealtzat eratziki beharreko gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoak aplikatuz sortzen denaren berdina edo beste balio bat handiagoa adierazten badute, ez da beste egiaztapenik egin beharko.

Era berean, ondasunen merkatuko batez besteko prezioa zerga-administrazioak aldizka onesten dituen taula ofizialetan ezartzen bada eta interesdunek eskualdatutako ondasunen balio errealtzat gutxieneko balio eratzikigarria zehazteko arau teknikoak aplikatuz sortzen dena edo handiagoa adierazten badute, ez da beste egiaztapenik egin beharko.

4. Interesdunek aitortutako balioa, hau da, foru arau honen 67. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri aurkeztu beharreko zerga-aitorpenean adierazitako balioa, egiaztapenaren emaitzakoa baino handiagoa denean, hura hartuko da zerga-oinarritzat.
5. Egiaztapenaren emaitzako balioak interesdunek aitortutakoak baino handiagoak badira, balio horiek besterentze-balioa izango dira eskualdatzailearentzat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, merkatuko balioaren arabera zehaztu behar denean.

Hala ere, Administrazioak frogatzen badu lortutako prezioa egiaztatutako balioa baino handiagoa dela, prezioa hartuko da besterentze-baliotzat.

6. Egiaztatutako balioa aitortutakoa baino %50 handiago izanez gero, Foru Aldundiak eskubidea edukiko du eskualdaturiko ondasunak eta eskubideak beretzat eskuratzeko. Eskubide hori zergaren likidazioa irmo bihurtzen den egunaren ondoko sei hilabeteetan soilik baliatu ahal izango da.

Eskubide hori baliatzen den bakoitzean, eskualdaketarengatik ordaindutako zergaren zenbatekoa itzuliko da. Ondasunak edo eskubideak atzeman baino lehen prezio osoa ordaindu behar da, hau da, aitortutako balioa.

7. Gehieneko besterentze-balioa tasaturik duten babes publikoko edo berdinetsitako administrazio kategorietako etxebizitza balorazioa egiteko, zergaren zerga-oinarriak ezingo du izan etxebizitza horiei babes publikoko edo berdinetsitako administrazio kategorietako etxebizitzeari buruzko legeria aplikatuz dagokien gehieneko prezioa baino handiagoa.
8. Eskualdatutako ondasun eta eskubideetarako konkurtsoko epaileak ebazpen bidez finkatzen duen balioa balio errealtzat hartuko da, eta, beraz, konkurtsu prozedura batean egiten diren ondasun eta eskubide eskualdaketetan ez da egiaztatu beharko balioa. Kasu horietan sartzen dira epai bidez onetsitako hitzarmenean ezarritako kreditu-lagapenak eta likidazio-fasean egiten diren aktiboen besterentzeak ere.

9. ...

61. artikulua. Peritu-tasazio kontrajarria.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 5. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den peritu-tasazio kontrajarria, interesdunek egiaztapenaren emaitzarekin ados ez daudela adierazteko eskatzen dutenean egingo da.

62. artikulua. Interesdunei jakinaraztea.

1. Oro har, zerga-administrazioak batera jakinarazi ahal izango dizkie interesdunei foru arau honen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako balio-egiaztapena eta hari dagokien likidazioa.
2. Hala gertatzen denean, interesdunek administrazio-egintza aurkaratuz gero, automatikoki etengo da egindako likidaziotik sortzen den zerga-zorren sarrera, eta ez da bermea jarri

beharrik izango, baldin eta aurkaratutakoa administrazioak egindako balio-egiaztapena bada.

Berdin gertatuko da interesdunek peritu-tasazio kontrajarria eskatzen dutenean ondasunen eta eskubideen balioa finantzatzeko.

3. Administrazioak banan-banan jakinarazten badu balioak egiaztatzeke administrazio-egintza, ez da likidaziorik egin behar harik eta balio-egiaztapena irmoa izan arte. Bien bitartean, denbora-tarte horri dagozkion berandutza interesak sortuko dira.
4. Administrazioak egiaztatutako balioek zerga arloan ondorioak izan ditzaketenean eskualdatzaileentzat, balioak egiaztatzeke egintza aurkaratu egin ahalko da, baldin eta egiaztatutako balioa kontuan hartzen bada balio hori aplikatuko den zergan. Horretarako, hiru aukera egongo dira: berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu, auzi ekonomiko-administratiboan bidetik jo edo peritu-tasazio kontrajarri baten bidez zuzen dezatela eskatu.

Erreklamazioa edo zuzenketa osorik edo zati batean onartzen badira, horren gainean emaniko ebazpenaren onuradun izango dira Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren subjektu pasiboak ere.

63. artikulua. Balio-egiaztapena aurkaratzea.

Ebaluazio prozedurak eragiten dituen administrazio egintzak, bereiz jakinarazi nahiz likidazioarekin batera jakinarazi, auzi ekonomiko-administratiboan bidetik aurkaratu ahal izango dira, balioen egiaztapenari dagokionez, baldin eta aurkarapenaren oinarriak zergen arloko egintzak edo zuzenbideko auziak badira.

64. artikulua. Peritu-tasazio kontrajarriaren arau orokorrak.

1. Eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioak egiaztatzearen ondorioz sortzen diren desadostasunak, baldin eta balio horien gainekoak badira, peritu-tasazio kontrajarriaren bitartez ebatzi ahalko dira, eta ezin izango dira auzi ekonomiko-administratiboan bidetara bitartez ebatzi.
2. Interesdunek peritu-tasazio kontrajarria sustatu ahal izango dute; horretarako, eskabidea aurkeztu behar dute, Administrazioak egiaztatutako balioetan oinarriturik egindako likidazioaren aurka jarri daitekeen lehenengo erreklamazioa aurkezteke epe berean.
3. Interesdunak uste badu jakinarazpenean ez direla behar bezala adierazi aitortutako balioak handitzeko datuak eta zioak, eta inguruabar hori berraztertzeke errekurtsioan edo erreklamazio ekonomiko-administratiboan salatzen badu, peritu-tasazio kontrajarria sustatzeko eskubideari eutsiz, aurreko paragrafoan adierazitako epea interesdunak jarritako errekurtsioa edo erreklamazioa ebazten duen erabakia administrazio bidean irmo bihurtzen den egunetik aurrera zenbatuko da.
4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 127. eta 128. artikuluetan aipatzen den peritu-tasazio kontrajarria Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko araudiaren 97. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko da.

III. KAPITULUA SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

65. artikulua. Sortzapena.

1. Zergaren sortzapen eguna izango dak:
 - a) Ondare eskualdaketetan, zergapetutako egintza edo kontratua egiten den eguna.

- b) Sozietate-eragiketetan eta egintza juridiko dokumentatuetan, zergapeko egintza egiten den eguna edo foru arau honen 52. artikuluan aipatzen diren agiriak eta idazkiak eman edo egiten diren eguna.

Sozietate-eragiketetan sortzapena zehazteko, zergapeko egintzaren formalizatzetzat joko da dagokion eskritura publikoa egilestea.

Hala ere, merkataritzari eta erregistroei buruzko legeriak eskatzen ez duelako eskritura publikoa egiletsi beharrik ez duten sozietate-eragitetan, zerga sortutakotzat joko da kontzeptu honetan zergapetutako zerga-egitatea den egintza, kontratua edo agiria egilesten edo formalizatzen denean.

2. Ondasunen eskuraketaren baten eraginkortasuna baldintza, termino, fideikomiso edo beste mugaren bat dela-eta etenda dagoenean, ondasunen eskuraketa muga horiek desagertzen diren egunean egindakotzat joko da, eta egun hori hartuko da aintzat ondasunen balioa zehazteko eta zerga-tasak aplikatzeko, foru arau honen 2. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa kontuan hartuta.

66. artikulua. Preskripzioa.

1. Preskripzioa, hurrengo paragrafoan xedaturikoa izan ezik, Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 64. artikuluan eta haren ondokoetan ezarritakoaren arabera erregulatuko da.
2. Preskripzioa egiteko, autolikidaziorako aurkeztu behar diren agirietan, agiri pribatuen data aurkezpen eguna izango da, aldez aurretik Kode Zibilaren 1227. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatu ezean; hala izanez gero, eransketaren, inskripzioaren, heriotzaren edo ematearen data zenbatuko da. Agiri bidez agerrarazten ez diren kontratuetan, kontratu-datatzat joko da interesdunek foru arau honen 67. artikuluan xedatutakoa betetzen duten eguna.
3. Aurreko paragrafoko xedapenekin bat etorriz agiri pribatu batean preskripziorako nagusitzen den datak ezarriko du zer baldintza dagokion agiri horretan jasotzen den egintza edo kontratuaren likidazioari, salbu eta Zuzenbidean onar daitezkeen frogabideen arabera aurretik egiletsi zela frogatzen ez bada.
4. Funtzionario atzerritarrek baimendutako eskrituretan, preskripzio-data eskriturak Espainiako edozein administraziotan aurkezten diren egunetik aurrera zenbatuko da, Espainian sinatutako nazioarteko itun, hitzarmen edo akordio batek epe hori hasteko beste data bat zehazten duenean izan ezik.

IV. KAPITULUA BETEBEHAR FORMALAK

67. artikulua. Autolikidazioa eta agirien aurkezpena.

1. Subjektu pasiboek zerga honen autolikidazioa aurkeztu beharko dute Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez ezarritako lekuan eta moduan.

Bereziki, foru arau honetako 13. artikuluko f) letran ezarritako kasuetan, zerga honen autolikidazioa aurkeztu beharko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru- agindu baten bidez zehaztuko den tokian eta moduan.

Hala ezartzen den kasuetan, autolikidazioa telematikoki aurkeztu ahal izango da, horretarako zehazten diren prozedura eta baldintzak beteta.

Foru arau honetan zehaztutako zerga-egitateei dagozkien agiriak ere aurkeztu beharko dira, paperean edo telematikoki, autolikidazioa aurkezteko erabili den moduaren arabera. Horrez gainera, eskualdatutako ondasunen eta eskubideen edo sozietate-eragiketaren edo egintza juridiko dokumentatuaren balio errala ere agerrarazi beharko da.

2. Autolikidazioa erregelamendu bidez ezarritako epeen barruan aurkeztu behar da.
3. Halaber, salbuespena edo txikitzea onartzea ekarri zuten baldintzak betetzen ez badira, subjektu pasiboek 2. paragrafoan ezarritako epe berean aurkeztu beharko dute autolikidazioa. Kasu horretan, epea baldintzak betetzen ez diren egunetik aurrera zenbatuko da.
4. Ez dute Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidaziorik aurkeztu behar jaraunspen-oinordetzetan egindako banaketa-eragiketetatik sortzen diren zerga-egitateek, baldin eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga likidatzeko Administrazioari aurkeztutako agiri berean ageri badira.
5. Autolikidazioa aurkezten duena zerga ordaindu behar dutenen mandataria izango da, hura aurkezte hutsagatik.
6. Higiezinaren eskualdaketen, zergadun ez-egoiliarrek beren ordezkariaren helbidean izango dute zerga-egoitza, zerga honen ondoriozko zerga-betebeharrak betetzeko. Ordezkaria Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatuko dute. Izendapen hori eskumena duen zerga-administrazioari jakinarazi beharko zaio, higiezina eskuratu eta bi hilabeteko epean.

Ordezkaririk izendatu ez denean edo izendapena jakinarazteko betebeharra bete ez denean, eskualdatu den higiezina hartuko da zergadunaren zerga-egoitza gisa.

68. artikulua. Epaiak eta aurkibideak bidaltzea.

Epai-organoek mota guztietako ondasunak edo eskubideak (ondasunen, zerbitzu pertsonalen, kredituen edo kalte-ordainen prezioa diren eskudirutako kopuruak izan ezik) eskualdatzeko edo adjudikatzeko ematen diren betearazpeneko epaien edo epai irmo direnen hileko zerrenda bidaliko diote zerga-administrazioari.

Notarioek, hiruhilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiaren barnean, aurreko hiruhilabetekoan baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea bidali beharko diote zerga-administrazioari. Zerrendan ez dira sartuko azken borondateko egintzak, seme-alabak onartzekoak eta Foru Aldundiak zehaztutako gainerako guztiak. Epe beraren barnean, sinadurak aintzateste edo legezkotzat jotzeko aurkeztu zaizkien zergapeko kontratuak agerrarazten dituzten agiri pribatuen zerrenda ere bidali beharko dute. Halaber, zergapeko agirietan legezko ohartarazpenen artean berariaz agerrarazi behar dute interesdunek agiriak autolikidaziorako aurkezteko duten epea, bai eta eskualdatutako ondasunei dagokien zerga-zorra ordaintzeari loturik daudela eta haiek ez aurkezteak ekarriko lituzkeen erantzukizunak ere.

Artikulu honetan aurrez ikusitakoa gorabehera, kontuan hartu behar da Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako laguntzeko betebeharrak orokorra.

69. artikulua. Autolikidazioen aurkezpenaren kontrola.

1. Notarioek baimendutako agiri guztiak biltzen dituen aurkibidean jasotako informazioa edo beste iturri batzuetatik lortutako informazioa kontuan hartuta, zerga-administrazioak uste badu zergapetu beharreko zerga-egitate bat edo batzuk daudela eta zergapekoek ez dutela aurkeztu egitate horien autolikidazioa, esku-hartu duen notarioari berak baimendutako notario-agiriaren kopia elektronikoa eskatu ahal izango dio.
2. Aurreko jarduketak egin ondoren aitortu gabeko zerga-egitate bat edo batzuk daudela egiaztatzen bada, zerga-administrazioak dagokien autolikidazioa aurkezteko eskatuko die zergapekoei, eta hilabeteko epea emango die horretarako.
3. Zergapekoak autolikidazioa aurkezten ez badute edo aurkeztu beharrik ez dutela frogatzen ez badute, behin-behineko likidazioa egin aurretik, likidazio-proposamena jakinaraziko zaie, hamabost eguneko epean egokitzen jotzen dutena alega dezaten. Hala ere, dagozkion zehapenak ezarri ahal izango dira. Kasu horietan, bai likidazio-proposamenean bai behin

behineko likidazioan, notario-agirian jasotako balioa joko da aitortutako baliotzat, salbu eta eskualdatutako ondasunaren edo eratu edo laga den eskubidearen balio errala baino txikiagoa denean: halakoetan, txikiagoa hartuko da aitortutako baliotzat.

4. Oker egin, eta eskatutako autolikidazioa beste administrazio batean sartu edo aurkeztu bada, zerga-zorra sartu beharra eten egingo da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 165.8 artikuluan ezarritako eran eta epeetan.

70. artikulua. Beste betebeharrak.

1. Administrazioak baimena eman ezean, bankuek, aurrezki kutxek eta gainerako finantza-erakundeek, elkarteek, sozietateek, funtzionarioek, norbanakoek eta bestelako erakunde publiko eta pribatu guztiek ezin dute erabaki ondasunak titularra ez den beste pertsona bati ematea, aurretik frogatzen ez bada zerga ordaindu dela, salbuetsita daudela edo zergapean ez daudela.
2. Epai-organoek hori frogatu gabe erabakitzen diren ondasun-emateen berri emango diote zerga-administrazioari.

71. artikulua. Agiriak onartzea eta erregistro-itxiera.

1. Zerga honen zergapeko egintzak edo kontratuak jasotzen dituzten agiriak ez dira onartuko bulego edo erregistro publikoetan eta ez dute ondorioz izango, eskumena duen zerga-administrazioari zerga-zorra ordaindu zaiola edo egintza edo kontratua zergatik salbuetsita dagoela edo, gutxienez, agiria aurkeztu beharrik ez dagoela frogatzen ez bada. Administrazio interesdunari berehala jakinaraziko zaizkio gorabeherak. Epaitegiek eta auzitegiek onartzen dituzten agirien kopia baimendua bidaliko diote eskumena duen zerga-administrazioari, baldin eta administrazio horretan likidaziorako aurkeztu direla adierazten duen oharrik ez badute.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzeko, zergaren ordainketa egiaztatutzat joko da, agiriarekin batera zerga ordaindu dela agerrarazten duen autolikidazioa aurkeztzen denean.

Zergaren autolikidazioa baliabide telematikoen bitartez aurkeztzen bada, artikulua honen lehen paragrafoan ezarri den zerga ordaindu dela edo salbuetsita dagoela edo zergapeko ez dela frogatzeko autolikidazioaren kopia aurkeztuko da, eta bertan Bizkaiko Foru Aldundiaren sistema informatikoen sortutako zigilu elektronikoa agertu behar da aurkeztu dela egiaztatzeko.

Zigilu elektronikoa benetakoa eta baliozkoa dela egiaztatzeko, organo emailearen fitxategietan sartu ahal izango da baliabide telematikoen bitartez.

2. Erregistratzaileak eskualdatutako ondasunak edo eskubideak likidazio edo likidazio osagarria ordaindu behar duela agerraraziko du, inskripzioan albo-ohar bat eginez.

Albo-oharra ofizios egingo da, eta baliorik gabe geratuko da eta ezeztatu egin beharko da, egindako likidazioaren ordainketa-gutuna aurkeztzen denean. Gauza bera gertatuko da albo-oharra egin zenetik laur urte igaro ondoren.

Ohar horretan, nahitaez adierazi behar da autolikidazioaren ondorioz ordaindutako zenbatekoa, bai eta ordainketaren data eta lekua ere; horrez gainera, Ogasun eta Finantza Sailak emandako espediente zenbakia adierazi behar da, halakorik balego, zergatik salbuetsita dagoela edo zergapean ez dagoela alegatu denean izan ezik.

3. Ez da beharrezkoa honako agiri hauek zerga-administrazioan aurkeztea:
 - a) Baliozta daitekeen gauza edo kopurua xede ez duten notarioen akta eta eskrituren kopia eta mota guztietako notarioen lekukotzak, zergapean dauden egintzak dituzten

agirienak izan ezik, agiritan ordainketa-oharra, salbuespenarena edo zergapean ez egotearena agertzen ez bada.

- b) Kanbio-letrak eta protesto-aktak.
 - c) Erregistro publikoetan aurreneurritzko idatzoharrak egin behar direla agintzen duten agiriak, baldin eta oharra Estatuak edo lurralde nahiz erakunde mailako herri administrazioek eskatzen badituzte.
 - d) Notarioen eskrituren kopiak, baldin eta sozietatearen kapitalaren kopurua berriro izendatzeko eta sozietateen akzioen, partaidetzen eta kuoten balio nominaletik hurbilenera ehunenera doitzeko eragiketak dokumentatzen badira eta haiek Euroa sartzeari buruzko abenduaren 17ko 46/1998 Legearen 21. artikuluan ezarrita badaude.
 - e) Ahalordeak, fakturak eta merkataritza-trafikoaren antzeko gainerako agiriak.
 - f) Eskritura publikoak izan ez arren, Jabetza Erregistroan idaztohartu edo inskribatu behar diren agiriak. Bereziki, hipoteken banaketak edo ezerezteak formalizatzeko erabiltzen diren agiriak.
 - g) Babes publikoaren erregimena bukatu dela adierazten duten agiri pribatuak.
4. Zergaren ziozko zorpekoen eraginkortasunerako abiarazten diren premiamenduzko administrazio-prozeduretan, baimena eman ahal izango da zordunaren eskubidea inskribatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian adierazi bezala eta bertan ezarritako izapideetarako.
 5. Ondasun Higigarrien Epekako Salmentari buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legean aipatutako ondasun higigarrien epekako salmentako kontratuak eta mailegu-kontratuak, lege horren beraren 15. artikuluan aipatutako erregistroan sartu ahal izango dira, erregistro horietan zerga-egoerari buruz administrazio-oharrik ez badaukate ere.

72. artikulua. Subjektu pasiboa aldatzea.

Ezin izango da zerga ordaintzeko edo ordainarazteko subjektu pasiboaren aldaketarik egin zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik frogatu gabe, baldin eta aldaketa horrek foru arau honek zergapetutako ondasunak, eskubideak edo akzioak eskualdatzea zuzenean edo zeharka ekartzen badu.

V. KAPITULUA ZERGAREN ORDAINKETA

73. artikulua. Arau orokorrak.

1. Foru arau honen 67. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu behar duten autolikidazioarekin batera, subjektu pasiboek zerga-zorra zehaztu beharko dute, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren foru aginduan adierazitako tokian eta moduan sartu beharko dute.
2. Foru arau honetan xedatutakoa aplikatuz, zerga-administrazioak egindako likidazioak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-bilketari buruzko Araudian ezarritako epeetan ordaindu behar dira.
3. Efektu tinbredunen bidez ordaindu behar diren zerga-zorrak zerga-egitatea egiten den unean ordaindu beharko dira.
4. Autolikidazioa egin ondoren, inskribatzeko modukoak diren ondasunak Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango dira, behin betiko likidazioaren emaitzari loturik daudela dioen oharra eginda.

VI. KAPITULUA ITZULKETAK

74. artikulua. Baldintzak.

1. Arlo judizialean edo administrazioan ebazpen irmo baten bidez adierazten denean egintza edo kontratu bat deuseztatu, hutsaldu edo suntsiarazi dela, zergadunak eskubidea izango du zergaren kuota gisa ordaindutakoa itzul dakion, baldin eta horrek irabazizko ondoriorik ekarri ez badio eta itzulketa Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 67. artikuluan ezarritako preskripzio epean eskatu badu. Epe hori ebazpena irmo denetik hasiko da zenbatzen.

Ez da beharko epaileen edo administrazioaren adierazpenik, ebazpena aldeek ezarritako baldintza bat betetzearen ondorio denean.

2. Irabaziak daudela ulertuko da interesdunek Kode Zibilaren 1.295. artikuluko elkarrekiko itzulketak burutu behar dituztela frogatzen ez denean.
3. Egintzak edo kontratuak irabaziak sortu baditu, egindako likidazioa zuzenduko da, eta, horretarako, eskualdatutako ondasun edo eskubideen aldi baterako gozamenaren balioa hartuko da oinarri gisa.
4. Nahiz eta egintzak edo kontratuak irabazirik sortu ez, baldin eta zerga ordaindu behar duen kontratugileak betebeharrak bete ez dituela-eta adierazten bada hutsaltzea edo suntziarazpena, ez da ezer itzuliko.
5. Alderdi kontratugileek hala adostu eta kontratua ondorerik gabe geratzen bada, ordaindutako zerga ez da itzuliko, eta zerga ordaindu behar duen beste egintza bat balitz bezala hartuko da. Elkarren arteko adostasun gisa onartuko dira adiskidetze-egintzan bat etortzea eta demandan amore emate hutsa.
6. Atzera-eskuratzeke itunarekin egiten diren salerosketetan atzera egiten denean, ez da zerga itzultzeko eskubiderik izango.
7. Foru Aldundiak zehaztuko du noiz trukatu ahal diren dokumentu tinbredunak edo tinbre mugikorak, edo noiz itzuli behar den dagokien zenbatekoa, beti ere ondoriorik izan ez badute.

VII. KAPITULUA ZEHAPEN ARAUBIDEA

75. artikulua. Zehapen-araubidea.

1. Artikulu honetako gainerako zenbakietan xedatutakoaren kalterik gabe, zerga honen arloko arau-hausteak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik kalifikatu eta zehatuko dira.
2. Tributu-arloko arau-haustea da foru arau honetako 13. artikuluko f) letran ezarritako kasuetan zergaren autolikidazioa epearen barruan ez aurkeztea, betiere jokabide hori ez bada arau-haustea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 196-202. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Tributu-arloko arau-hauste horrentzako zehapena, oro har, isuna izango da, proportzionala eta ondasun eskuratuei dagokien zerga-oinarriaren %0,1ekoa, gutxienez 600 euro izanik eta 9.000 euro gehienekoa.
3. Tributu-arloko arau-haustea da foru arau honetako 13. artikuluko f) letran ezarritako kasuetan zergaren autolikidazioak akatsekin aurkeztea, betiere jokabide hori ez bada arau-haustea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 196- 202. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Tributu-arloko arau-hauste horrentzako zehapena isuna izango da, proportzionala eta autolikidazioan haiei buruzko datuak bete gabe utzi diren edo datu

faltsuak, osatugabeak edo zehazgabeak erabiliz jaso diren ondasun eskuratuei dagokien zerga-oinarriaren %0,2ekoa, gutxienezkoa 1.000 euro izanik eta 15.000 euro gehienekoa.

4. Aurreko bi zenbakietan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Finken errentamenduak.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Bizkaiko Lurralde Historikoaren martxoaren 21eko 3/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, oraindik ere balio osoa izango dute eraketan zegokien zerga efektu tinbredunen bidez ordaindu zuten finken errentamenduek.

Bigarrena. «Aena Aeropuertos S.A.» eratzea.

«Aena Aeropuertos S.A.» eratzeko behar izan daitezen egintzak, kontratuak eta dokumentuak salbuetsita daude Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik.

Hirugarrena. «Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado» eratzea.

«Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado» eratzetik zuzenean zein zeharka eratorritako ondare eskualdaketak, sozietate-eragiketak eta egintzak salbuetsita daude Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik, baldin eta sukjetu pasiboa Sozietate hori edo Loterías y Apuestas del Estado enpresa erakunde publikoa bada.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Indargabetzeak.

1. Foru arau honek ondorioak sortzen dituen egunean, indargabetuta geratuko dira haren aurkako xedapen guztiak eta, bereziki, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko martxoaren 21eko 3/1989 Foru Araua.
2. Era berean, indargabetuta geratuko dira honako hauek: 5/1995 Foru Araua, azaroaren 29koa, premiazko zerga neurriei buruzkoa, eta 4/1988 Foru Dekretu Arauemailea, urriaren 26koa, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean dauden zerga-neurriak Bizkaiko zerga-arautegiaren arabera egokitu dituenak.
3. Xedapen honetan jasotako indargabetzeek ez diete kalterik eragingo zerga-administrazioak haren indarraldian sortutako obligazioen gainean dituen eskabideei.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

1. Foru arau hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2011ko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.
2. Foru arau honen edukia berau ondorioak izaten hasten denetik sortutako zerga-egitateei aplikatuko zaie.

Lehenago sortutakoek aurreko foru arauan ezarritakoa beteko dute.

Bigarrena. Baimenak.

Baimena eman zaie Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru arau hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bilbon, 2011ko martxoaren 24an.

Batzar Nagusietako lehenengo idazkariak, INÉS NEREA LLANOS GOMEZ.

Batzar Nagusietako lehendakariak, ANA MADARIAGA UGARTEK.